

EUSKAL ERBESTEA ETA ERBESTEAK

Xavier Irujo Ametzaga

Está visto que nos toca a todos los exilados andar descuajados a través de tierras americanas a partir del día en que nos hicieron abandonar la tierra en la que vivimos los vascos desde que la Historia pueda recordar¹.

Erbestea “norberarena ez den herrialdea” da berez, “beste herria” edo “gainerako herriak” etimologikoki. Bigarren adiera batekin “herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia edo denboraldia” dugu XVIII. mendetik hona hitzaren esanahi. “Erbestetu” aditza dugu ere aurrekoarekin batera 1745. eta 1749. urtetik geure hizkuntzak idatziz erabilitako hitza. Bigarren Guda Karlistaren amaieraren ostean, 1885ean hain zuzen, “erbesteratu” aditz forma gehitu eta zabaldu zen ere euskararen idatzitako literaturan, hortaz, ahozko tradizioan hizkuntzak aurretik ezagunak zituen formak ditugula onartu behar. Artikulu honetan landuko ditugun XX. mendeko gertakizun historikoek “erbeste” erroko “erbesteratze” aditz izena izan zuten fruitutzat, izan ere, 1952. urtean du Ibon Sarasola hizkuntzalariak lehen aldiz katalogaturik forma hau². 1820an lehen aldiz idatziz erabilitako forma dugu “erbestetar” (atzeritar). Azkenik, erbesteratuen penak eta egoera tamalgarria adierazteko “erbestetasun” hitza ezagutu zuen geure hizkuntzak 1802an.

Sinonimotzat dituzte “atzerri” eta “erbeste” sinonimoen hiztegi gehienek, bai eta “atzerri” eta “aberri” edo “dierrri” antonimo. “Atzerri” 1596. urtetik katalogatutako euskal hitzak “norberarena ez den herrialdea” adierazten du jatorriz. Esanahi honekin batera, eta aurrean esandakoaren ildoan, XVIII. mendeko krisialdi politikoaren eta ekonomikoaren eraginez Gipuzkoako Konpainiako itsasontzietan Ameriketako lurraldeak ezagutu zuten euskal semeek bigarren esanahi bat gehitu zioten aitzineko hitzari, alegia “herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia ematen den lekua”. Hortaz, XVIII. mendea baino lehen hitzak esanahi konnotatibo ezkorra bazuen ere, “bortxaketa” edo “beharra” adierazten duten sema gehitzen diote ohiturak eta hizkerak, hiztunek kontinente berrian pairatutako esperientziak berak azken finean, hitzaren jatorrizko esanahiari. Hedadura semantikoaz, “atzerria” norberarena ez den herria edo lurralde arrotza bada ere, hots, etimologikoki “atzeko”, “osteko” edota “gibekeko” herria, “herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia” dugu ere esanahi. Hirugarren urratsa dugu hau. Kasu honetan ez da lekua edo tokia esanahiaren erroa, toki horretan ematen den denbora edo egonaldia baizik. Era berean, “atzerri” eta “atzerriatu” (1929) edo “atzerri” (1745) izenarekin eta aditzekin batera, “atzerrialdi” eta “erbestealdi” edo “erbestaldi” hitzak gehitzen dituzte XX. mendeko euskaldunek atzerrian edo erbestean beharturik ematen den denbora edo egonaldi hura adierazteko. Ez da inondik inora kasualitatea 1949. urtean “atzerrialdi” hitzak euskal izkribuetan argia ikustea, hots, 1937ko eta 1940ko erbestaldi latzen ostean. 1959koa dugu “erbesteratze” aditz izena eta, 1975. urtearen ondorengo atzerrialdiek,

· *Doctor en Historia. Profesor de la Universidad de Nevada, Reno. Profesor visitante de la universidad Boise State University. irujo_ametzaga@hotmail.com*

¹ Bingen Ametzagak Pedro Artetxeri, (Artetxe, 64-4-26).

² Sarasola, Ibon, *Euskal Hiztegia*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia, 1996.

berriz ere geure herria doluz eta minez jantziz, “atzerriratzte” hitz berria erakarri dute geure hizkuntzara. Lerradura semantikoaren eraginez, “erbesterratu”, “atzerriratu” eta “deserritu” izenekin batera, “erbestetar” (1820) eta “atzerritar” hitzak gorde ditu hizkuntzak kanpotarra, lekortarra edo arrotza, hots, “euskal semea ez dena” adierazteko.

Aurreko bi hitzen parekoa dugu ere “deserri” mailegu gramatikaren eboluzio semantikoa eta gramatikala XVIII. mendetik hona, izan ere, ez du Sarasolak XVIII. mendetik hara hitzaren arrastorik aurkitu. Ordutik hona, izenarekin batera aditza “deserrira”, “deserritu” eta “deserriratu” aurkitzen ditugu, bai eta, 1983az gerotik, “deserriratzte” aditz izena ere. Askoz zaharragoa dugu “desterru” mailegu semantikoa, aurrekoaren iturria alegia. Hain zuzen, XVI. mendeko bigarren erdialdean kokatzen du hizlariak lehen aldiz euskal idazkietan maileguaren izena eta partizipioa, alegia “desterru” eta “desterradu” (1562). Ostera “desterratu” aditza dugu euskararen kutsu semantikoan (1617). Esanahiari dagokionez, “erbeste” edota “atzerri” hitzen bigarren esanahiaren sinonimoa dugu “deserri” eta “desterru”. Ez du ordea azken hitz honek “herri edo lurralde arrotza” adierazten noski.

Bestelako formak jaso ditu euskarak ere. “Exilio” izena eta “exiliatu” aditza erabiliak izan dira maiz aho hizkuntzan bai eta, gutxiago bada ere, idazkietan 1937ko erbesteaz gerotik. Jatorriz frantsesetik hartutako mailegu semantikoa dugu hau, izan ere, XX. mendea arte gazteleraz “destierro” hitza zen nagusi, naiz eta latineko “*exsilium*”³ XII. mendetik ezaguna izan. Euskaraz “erbeste” eta “atzerri” izenek aurkezten dituzten bi esanahiak ditu latineko jatorrizko hitzak ere, hots, “lurralde arrotza” eta “bertako lurraldetik kanpo behartutako egonaldia”. Frantsesetik gaztelerara ba pasa zen hitza 1939ko erbestea adierazteko, hortaz, kutsu politiko nagusiko esanahiarekin hartu zuen gaztelerak hitz hau. XX. mendeak beste zenbait herrialdeetako erbesteak ezagutu baditu ere, egun 1939ko erbeste errepublikarra adierazten du nagusiki hitz honek gazteleraz. Izan ere, erredundantetzat har ditzakegu “exilio republicano” edota “exilio de 1939” bezalako espresioak.

Oso bestelakoa da “exodo”, “eksodo” edota “diaspora” mailegu semantikoen jatorria eta esanahia. “Exodo” grezieratik gaztelerara eta, gazteleratik euskarara pasatutako hitza dugu. Latinak ere ezaguturiko hitza dugu hau. εξ “kanpora” eta οδοζ “bidea” izanik, “irteera” dugu hitzaren esanahi etimologikoa. Jatorriz greziar tragediarekin lotutako hitza da hau, ekitaldiaren amaieran tragediako eta, ostera, komediako pertsonaiek eta koroak antzokitik kanpo hartzen zuten bidearen eta bidea hartzearen ekintza bera adierazteko erabilitako izena baitzen, “amaiera” alegia. Latinez edozein ekitaldi baten bukaeran taularatzen zen antzezlan komikoaren izena dugu exodoa. Hala ere, mendeak pasa eta Bibliako itzultzaileek Pentateukoko bigarren liburuen amaieran egin zuten erabilera indartu zen, alegia “Moisesek Egiptotik buruturiko irteera”. Hau da zalantzarik ez egun hitzak euskaraz eta beste hizkuntzetan ere gorde duen kutsua, erlijioaren eremu semantikoaren baitan “judutar herriaren mendeko deserria”. Zenbaitetan 1937ko euskal deserria adierazteko erabili izan bada ere, hitzaren kutsu erlijiosoa eta historikoa alde batera arras utzi gabe izan da. Era berean, greziar erroko hitza dugu “diaspora”, berez “hedatu”, “barreiatu” edo “sakabanatu”. Etimologikoki δια-σπειρω aditzetik dator, “erein” edo “haziak bota” hain zuzen, grezieraz “σποροζ” “hazi” baitugu. Hedaduraz, “sakabanatzte” edo “barreiatze” esanahia hartu zuen διασπορα izenak. Aurrekoa bezala,

³ “Exsilio” aditzetik datorren izena dugu hau, hots, “kanpora jautsi”, “bidetik irten”, ala, hedaduraz, “norberaren onetatik atera” edo “goretsi”.

Biblian judutar herriaren mendeetako deserria adierazteko erabilia izan da itzultzaileen eskutik, hortaz, esanahi horrekin iritsi zaigu guri ere. Hala ere, “exodo” bezala, “diaspora” ere soil soilan 1937ko euskal erbestea adierazteko erabilia izan da.

“Migrazio”, “migrakuntza”, “migrapen”, “herralda”, “herraldatze”, “lekualdatze” edota “lekualdaketa” ditugu azkenik etimologikoki aztergai. Euskarak 1870. urtetik aurrera ezaguturiko aditza dugu “emigratu” eta, garai berekoa dugu ere azken forma honen “emigratze” aditz izena. 1977. urtean katalogaturiko hitza du Sarasolak “emigrazio” izen arrunta ordea⁴. Hogeita hamar urte eskaseko hitz berriak ditugu ere “migratu”, “migrazio” eta “migratzaile” gazteleratik hartutako mailegu semantikoak. Ez dira erabat sinonimoak “migrazio” eta “emigrazio” formak, hain zuen, “pertsonak edo giza taldeak sorlekua utziz, beste herrialde batera bizitzen joatea” du lehenengoak esanahi. Bigarrenak ordea migrazioaren zuzenbidea adierazten du, “jatorrizko herritik kanpo” alegia. Hortaz, “emigrazio” forma “inmigrazio” izen arruntaren antonimo gisa har ditzakegu. Aurrekoak bezala, hitz berria dugu ere “inmigrazio”, “inmigrante” edota “imigrazio” eta “imigrante” formak. Emigrante eta inmigrante “sorlekua utziz beste herri batera doan pertsona dugu”; inmigrante sorlekua utziz geure herrira datorren emigrantea da ordea. Migrazioa “inmigrazioa” ala “emigrazioa” multzokatzen dituen gertakaria dugu, zuzenbide gabekoa alegia. “Migro” latineko aditzean dute forma guzti hauek iturburu, “etxetik edo sorlekutik alde egin” hain zuzen. Gaztelerak XV. mendetik ezaguna duen forma bada ere, ez ziren XIX. medea arte zabalduko “emigrar”, “emigración” edo “migración” hitzak. XIX. mendearen amaierakoa dugu “inmigración” eta “inmigrante” formak. Bi sema nagusi bereizten dituzte funtsean “migrazio” forma eta azken honen eratorriak aurrean ikusitakoengandik, hots, gertakari globala eta sustrai ekonomiko zorrotzekoa dugu migrazioa. “Erbeste” hitza konnotazio politiko sendoa eta “exodo” erlijio kutsu higitua badute, XIX. mendeko industrializazio prozesuei lotutako gertakaria adierazteko jaiotako hitza dugu “migrazio” sustraiko familia lexikoa.

Arrasto luzeagokoak ditugu “herralda”, “herraldatze” edota “herraldatu” formak euskaraz, izan ere, XVIII. mendearen erdialdean kokatzen du Sarasolak hitz hauen iturburu. XVII. mendekoak ditugu, 1664koak alegia, “lekualdatu” aditza eta “lekualdatze” azken honen aditz izena. Esanahi konnotatiborik gabeko hitzak ditugu hauek, hala ere, ez dira jatorriz erbeste edo migrazio prozesu konplexu eta zabalak adierazteko sorturiko hitzak. Hortaz, ez du “herralda” formak “erbeste” izenak duen ukitu politiko sakona.

Aurrean esandako guztiarengatik, “atzerri” edota “desterru” hitzak semantikoki zaharragoak badira ere, bai semantikoki duen kutsu historikoagatik zein esanahi esanguratsurengatik, “erbeste” hitza erabilia izan dut aurreko liburuetan bai eta artikulu honetan ere bai XIX. eta XX. mendeetan euskal herriak bizi dituen deserriak izendatzeko. Bi funtsezko arrazoi daude aukera honen oinarrian. Aurrean aipatutakoaren ildoan, “erbeste” hitzak argia ikusi zuen momentu historikoarengatik Euskalerrriak pairatu duen gertakari hau adierazteko duen kutsu semantiko egokiena delako, bestalde eta nagusiki, Parisko edota Buenos Airesko *Euzko Deya* aldizkarietan, Guatemalako *Euzko Gogoan* edota beste aldizkarietan zein gutunetan eta Eusko Jaurlaritzako idazkietan euskal hiztunek bizi zuten deserriari aipu egitean “erbeste” izena erabili zutelako nagusiki. Badira ordea hautu honen inguruan zenbait gogoeta egiterik.

⁴ Ezaguna du ordea aurretik ere euskarak “emigracio” hitza. Aipatzekoa dugu hemen José Cola Goitik 1885ean Donostian argitara emandako *Euscal-naparren joera edo emigracioa* lan bikaina.

Sematikoki ezezik, historikoki ere zenbait puntu behar dira “erbeste” hitzaren inguru argitu. Erbestea “heritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia” dela esan dugu. Ordea, badira Euskal Herrikan kanpo inoiz atera ez ziren erbesteratuak; 1937ko lehen deserriratuak Iparralderantz jo zuten nagusiki, hala ere eta, inongo zalantzarik gabe, erbesteratuak ditugu. Espetxea edota beste motatako zigorrak jaso ondoren Espainiar estatuko beste probintzi edo herrialde batzuetara herraldaturiko euskal seme ugari ditugu ere. Erbesteratutakoak dira hauek ere naiz eta zenbait historialari eta juristen artean euskal “erbestea” edo erdal “exilio” hitza erabili aurretik “desterru”, “deserri” edo “destierro” hitza orokortu erbesteko kasu konkretu hauek adierazteko. Erbesteaz hitz egitean, ez dugu heldueran horrenbeste indar egin behar, izan ere, Ameriketatik Asiara mundu zabala dugu norabide eta helmuga, herria “bortizki eta beharrez utzi izatea” baizik. Helduera baino abiapuntua dugu ba ideia nagusi. Hala ere, badugu hemen ere aztertzeko mamirik.

“Bortizkeria” eta “beharra” edozein erbeste baten gazigarriak direla esan dugu. Geure hizkuntzan erroturiko zenbait esamolde ditugu honen lekuko bikaina, “atzerri otserri”, “deserri, deserro” edota “heriotza eta atzerria, herria husteko bidea”... Hauek eta beste hamaika esamoldek atzerria, deserria edota erbestea herrian utzi zuen urrats garratzaz mintzatzen dira. Alabaina, badira “bortizkeri” edo “behar” honen inguruko zenbait gogoeta egiterik, bai eta aunitz galdera erantzuterik. Esaterako, adieraz dezakegu “jatorrizko herrira edo aberrira bueltatzeko ezarritako trabak” direla bortizkeri horren ezaugarrien artean bat. Ordea, zer motako trabaz ari garen argitu behar, hau da, politikoak, ekonomikoak, sozialak... Ikuspegi juridiko huts batetik, soil soilan traba politikoaz dago hitz egiterik, hain zuzen, *Tribunal de responsabilidades políticas* delako epaimahaiak bideratutako prozesu sumarismoen ondorioz erbeste zigorra jaso zutenen inguru eta bakar bakarrik giza talde horren inguru hitz egiterakoan erabil dezakegu “erbeste” edota “erbesteratu” hitza. Motz geratzen da ordea bai historikoki zein soziologikoki aurreko ikuspegia. Ildo honetan, Ameriketako euskal etxeak eta urtetan Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatu zituzten zenbait gizonetzko eta emakumezko ez zituzten *Tribunal de responsabilidades políticas* delakoak ezarritako heriotza edota beste motatako zigorrak bere gain. Erbesteratutakoak ditugu ordea zalantzarik gabe. Hauen artean dira heriotza edo/eta erbeste zigorra jaso zuten gizonetzkoen ematzak, bai eta, azken hauekin batera, euren seme-alabak. Ezin esan, liburu honetan aipaturiko adibide bat ekartzeagatik, *Alsina* taldeko emakumezkoak ez zirela bortizki eta behar gorrian Marseillatik Amerikarantz erbesteraturik irten. Gertakari bakar eta bakun baten bi aurki ditugu zigorra pertsonalki jaso edota zigorraren eraginez edota zigorraren beldur sorterritik alde egitea. Zalantzarik ez, arrazonomendu juridikoei arrazoi izpirik kendu gabe bada ere, 1937ko eta 1940ko euskal erbesteko oinarrizko eta nahitaezko parte dira eta, hortaz, “erbesteratutzat” hartu behar ditugu, Ameriketako eusko etxeak jantzi zituzten emakumezko, gizonetzko, gazte eta haur bakoitza.

Goian esan bezala, ikuspegi juridiko batetik erbeste guztien gazigarri den “bortizkeria” eta “beharra” izaera politiko hutsa izanik, ba al da etimologikoki, semantikoki edo historikoki beste “premia” edo “zehapen” motaz hitz egiterik? Ildo honetan bertan, ba al dago “erbeste politikoaz” hitz egiterik? Ez al dira erbeste guztiak “politikoak”? Hala bada, nola bereizi horren muga lausoa eta lanbrotsua duten egoera politikoak, ekonomikoak edo soziologikoak? Aurrean esandakoaren ildoan eta, liburuan aztertuko dugun bezala, 1936ko Gudak eragindako 1937ko erbesteari eta Bigarren Mundu Guda 1939an hasi

ondoren Frantziaren 1940ko hondamendiak eragindako erbesteari, 1945etik aurrera historikoki ezezaguna bezain sakona eta zabala dugun ttanttakako euskal deserri prozesua gehitzen zaio. Ez da hau ordea migrazio edo emigratio ekonomiko hutsa, erregimenaren egunez eguneko errepresioaren ondorio latza baizik. Izan ere, eta adibide xume bat ekartzeagatik, 1947ko eta 1951ko Bizkaiko eta Gipuzkoako greben ondoren zigortutako zenbait eta zenbait langileek deserria ezagutu zuten. Langile hauen familien egoera ekonomikoa eta politikoa ondo aztertu ondoren, erbeste ekonomikotzat hartu behar dugu hau. Ildo berean, *Asociación Nacional de Productores de Leche* uruguaitar erakundeko lehendakaria zen Rafael Zabaleta abeltzain euskaldunaren eraginez 1949ko abenduaren 20an *Tacoma* itsasontziko 62 euskal etorkinak frankismoaren mamutik ihesik heldu ziren Uruguaiako kostaldera. Halaber, ezin ahantzi Imanol Berriartua, Alberto Onaindia edota Jokin Zaitegi bezalako Ameriketara edo Asiara Elizak bidalitako ehunka fraideak eta apaizak. Ez zituen azken hauek epaile militar batek deserri-zigorra ezarriz epaitu, alabaina, Ameriketako kostaldera iritsi ziren Euskal Herritik egotzirik eta Euskal Herrian puniturik. Erbestearen urradura, samindura eta herrimina ezagutu eta partekatu zuten 1937ko eta 1940ko “erbesteratu politikoekin”. Askok eta askok Euzko Alderdi Jeltzalea, Euzko Abertzale Ekintza, Izquierda Republicana, Alderdi Sozialista, Alderdi Komunista edota beste edozein alderdi politikoko edo sindikatuko kide gisa Jaurlaritzaren borroka politikoa hartu zuten parte, bai eta eusko etxeko bizi sozialean eta politikoa murgildurik bizi ere: “erbeste” den gertakari historikoaren funtsezko parte dira ikuspegi guztietatik, naiz eta, juridikoki eta, hortaz, semantikoki, ezin literalki erbesteratutzat hartu.

1937ko erbeste politikoa hitz egitean ezin alde batera utzi Eusko Jaurlaritzaren eskutik mundu zabaleko eusko etxeetan sortutako erakunde eta instituzio sistema konplexua. Ezin erbeste ulertu euskal semeek XIX. eta XX. mendeetan iristen ziren herrikideen sorospenerako antolatutako zerbitzuak, eskainitako elkarkidetzak eta emandako laguntza kontutan hartu gabe. Izan ere, horixe dugu liburu honen aztergai nagusia, erbeste gertakari historikoa, ekonomikoa eta soziologikoa gain, atzerria “sistema” gisa. Ikusiko dugun bezala, XVIII. mendeko Gipuzkoar Konpainiaren eskutik euskal semeek ezagutu zituzten deserrien ezaugarri nabarmenena elkarkidetzaz aberkideen sorospenerako antolakuntza osotua dugu. Horixe bera ikusiko eta aztertuko dugu ere XX. mendeko deserrietan. Erbesteaz hitz egitean, euskaldunek Ameriketara eta munduko beste zenbait puntuetan ere eratutako komunikazioa errazteko, harremanak sendotzeko eta laguntza helarazteko sistemaz edo sareaz ariko gera liburu honetan. Esan bezala, 1937ko erbesteaz hitz egitean Jaurlaritzaren inguru eta ordezkartzen eraginez eusko etxeetan eratutako sistema hori aztertuko dugu sakonean.

Badugu oraindik azken gogoeta bat “erbeste” kontzeptuaren inguru egiterik. Izan ere, txanponek bezala, bi aurki ditu atzerriak. Alde batetik erbeste eragin duen eta erbesteratuak bizi duen egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala eta, bestetik, asiloa eskaintzen duen etorrerako herrialdea. Erbeste bezain zaharra dugu asiloa, *al exilio, que es un modo de muerte, ha correspondido siempre un asilo, que en más de un sentido es la vida. No ha sido un camino fácil y a menudo fue solo la prolongación del sufrimiento. Pero el asilo ha sobrevivido por siglos, como si a través de él la humanidad entera reencontrará la vida*⁵. Erbestearen funtsezko atala eta maiz baino gehiagotan sarritan ere ahantziriko pertsonak, alderdiak, taldeak edota gobernuak ditugu esku zabal euskal

⁵ Villalpando, Waldo, *El asilo en la historia*, http://www.acnur.org/index.php?id_pag=373

etorkinei laguntza eskainiz. Erbesteko eta Euskal Herriko pertsonai historiko hauei garrantzi eta aipu berezia eman nahi izan diegu liburu honetan, bai eta, aztergai historiko nabarmena izanik eta Uruguako erbesteari dagokionez, *Uruguaitarrak. Uruguako erbeste politikoaren hiztegi biografikoa (1943-1955)* 25 uruguaitar politikarien, idazleen, kultura eta legegizonen biografiaz osaturiko liburua burutu dugu.

Amaitzeko 1937ko erbesteari buruzko hausnarketa bat. Zenbait egilek errepublikar erbestea 1939an kokatzen badute ere, euskal erbestea edota euskal errepublikar erbestea, kronologikoki 1937an lekutzea erabaki dugu. Izan ere, lau euskal erbestealdi nagusiz dago hitz egiterik, alegia, 1936ko Gudak eragindako 1937ko lehen erbestea; beste errepublikar guztiekin Bigarren Mundu Guda 1939an hasi ondoren Frantziaren 1940ko hondamendiak eragindako bigarren erbestea; 1949ko krisialdi ekonomikoaren eraginez Jaurlearitzaren baitan edota Jaurlearitzarentzat lan egiten zutenen hirugarren erbestealdia eta, goian esan bezala, 1945etik aurrera historikoki ezezaguna bezain sakona eta zabala dugun ttanttakako euskal deserri prozesua. Ez dugu honekin euskal erbestea 1939an faxistek Madril garaitu ondoren Kataluniako mugatik iheska irten ziren milaka eta milaka errepublikarren erbestearengandik banandu nahi. Izan ere, 1937an bezala orduan ere euskal seme ugari ditugu Pirinioak garaitzen, besteak beste, Uruguako atzerria ezagutuko zuen Bingen Ametzaga bera. Hala ere eta aztertuko dugun bezala, badu euskal erbesteak zenbait berezko ezaugarri eta horien artean, berezko kronologia aipatu behar. 1937ko ekainean garaitu zuten faxisten indarrek Bilbo eta Bizkaiko hiriburuarekin Euskal Herri errepublikarraren azken gotorlekua. Orduan hasi zen eta ez 1939an euskal seme gehiengoarentzat erbestea. Ameriketako lurraldeetan heriotzak eraman zituen euskal semeentzat ez zuen erbesteak amaierarik izan.

Aunitz euskal erbeste ezagutu ditu Ameriak 1841 eta 1940 ehun urte luzeko bitartean. Behin eta berriro, guda dugu deserritze fluxuen eragile nagusia, gerraren osteko goseteak, eskasiak eta inposaturiko erregimen berri batek zekartzan aldaketa politikoak, ekonomikoak eta soziologikoak. Euskal Herriak XIX. eta XX. mendearen lehen erdian deserri ugari pairatu baditu ere, XVIII. mendean dugu 1940ko erbesteratuek biziko zuten atzerriko egituraren funtsezko oinarria. 1715ean Utrechteko itunak Ternuako bakailao industria arras ezereztu ondoren, Gipuzkoako Batzar Nagusien laguntzaz 1728an fundatutako Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrak bideratu zuen lehen aldiz araututako euskal atzerri egituratua eta iraunkorra Ameriketara. 1728 eta 1785 bitartean ezagutu zuen lehen aldiz Ameriak Euskal Herrian antolaturiko etengabeko euskal deserri fluxua, bai eta Venezuelako Kapitaintza Nagusian eraikitako lehen eusko etxeen eskutik euskal gizarte egonkorra, hots, lehen euskal erbestea. Izan ere, euskarak jaso zuen amerikar bizimoldea eta, oro har, deserria bideratzeko Batzar Nagusiek eta Konpainiak antolatutako egitura orokorra izendatzeko hitz berria: “erbestea”. Jatorriz “atzerri” hitzak “norberarena ez den herrialdea” esanahia izanik, XVIII. mendetik aurrera, hain zuzen, Gipuzkoako Konpainiak argien mendean eragindako eta antolatutako lehen euskal migrazio zabalak gauzatu zirenetik, “herritik edo lurraldetik kanpoko egonaldia edo denboraldia” adierazteko “erbeste” hitza dugu euskaraz. 1745. eta 1749. urteetan erabili zen lehen aldiz euskal idazkietan “erbestetu” aditza.

Tankera ezberdinekoak ditugu XIX. mende luzean zehar Hego eta Ipar Euskal Herriak ezaguturiko deserriak. Gipuzkoako Konpainiak susperturiko deserria Gipuzkoako Batzar Nagusien laguntzarekin bideratu bazen eta, hortaz, helburu eta etekin ekonomiko garbi batekin, Frantziar Iraultzak 1789tik aurrera, Konbetzioko gudak 1794an edo Napoleonen

okupazioaren osteko gerrak eta, nagusiki, Karlistadak eragindakoak dira XIX. mendeko deserriak. Orbaina utzi zuen honek gure hizkuntzan. Izan ere, Bigarren Guda Karlistaren amaieraren ostean, 1885ean hain zuzen, “erbesteratu” aditz forma gehitu eta zabaldu zen ere ahozko eta idatzitako euskal literaturan, orain lehen ez bezala “herritik edo lurraldetik kanpo egonaldia edo denboraldia bortxaz jasan behar duena” esanahiarekin. Nahiezean edo oldarrez pairatutako deserria dugu ba XIX. eta XX. mendeetako erbesteak, arrazoi ekonomikoaz gain, politikoak ere gehitzen direlarik. Bestalde, XVIII. mendean ez bezala, ez ziren erbeste hauek Batzar Nagusiek edota erakunde batek antolatutakoak, hortaz, ez ziren Pasaia edota beste euskal portuetatik irteten ziren euskal ontzitegietan eraikitako itsasontzietan eta euskal enpresa batek eskaintako lanarekin itsasoratzen. Oraingoan, José Cola Goitik *Euscal-naparren joera edo emigracioa* liburu ederrean agertzen duen bezala⁶, errekrutatzaileek edo kakoek eskaintzen zuten laneko agintza soilarekin amerikar merkatarien konpainien itsasontzietan burutzen zuten itsasbidea. Laburbilduz, ez zuen euskal erakunde batek XIX. mendeko euskaldunen joera edo emigrazioa antolatu eta bideratu, ez eta euskal gizartea Ameriketara bildu eta egituratu.

Hala ere, XVIII. mendeko esperientzia ez zen arras galdu eta goiz hasi ziren XIX. mendeko euskal etorkinek, 1661ean Sevillan edo 1730etik aurrera La Guairako portuan eta Caracasen gero egin zuten bezala, lehen euskal elkarteak eraikitzen. XIX. mendeko bigarren erdian Ameriketara heldutako euskal semeek euskaldunen artean aurkitu zuten babesleku bai eta lan egiteko aukera eta aholku. XIX. mendearen amaieran laguntza sistema egituratua dugu euskaldunen artean, izan ere, euskaldunen elkarteetan aberriratzeko funtsak ezarri zirelarik, erretiroa eta Euskal Herrira itzultzeko dirulaguntza ere eskaintzen zieten zaharrenei. Bigarren Guda Karlistaren ostean, 1876an bertan hain zuzen, fundatu zen dugu Montevideoko *Laurak-Bat* eusko etxea eta, ildo honetan bertan, lehengo euskal elkarte gehienak eusko etxeak ditugu XX. mendearen hasieran bilakaturik. XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan zeharo baretzen da euskal migrazio etorria eta, hortaz, Euskal Herria eta Amerikako herrialdeen arteko joan-etorria. Ordurako, euskal sustraia ahanzi gabe, amerikar gizartean erroturik ditugu lehen euskal etorkinen ondorengoak. Hau da eusko etxeen agerreraren arrazoiren artean bat, hots, jatorrizko euskaldunen emigrazioa etengabekoa eta iraunkorra ez zen heinean eta, Ameriketara euskal gizarte finkoa egituratu zelarik, Euskal Herriarekin lokarria gordetzeko eta gerizatzeko gura eta beharra.

1938an lehen euskal erbesteratuak Ameriketako kostetan lehorreratzean, eusko etxearen inguru bildutako tokian tokiko esku handiko euskal gizarte konplexua aurkitzen dute. Izan ere, hau da Ameriketako bidea hartzeko arrazoiren artean funtsezko zioa: askok eta askok senitartekoak edo ezagunak zituzten Ameriketara, bai eta elkartasuna eta babesa lortzeko bidea. Berriz ere XVIII. mendeko lehen euskal finkapenen edo egonlekuen irudira, Ameriketara finkaturiko euskal gizarte baten baitan aurkitu zuten leku erbesteratuek. 1938az goerotik eta, nagusiki 1940an naziek Europa garaitu ondoren, eusko etxe guztiek irekitzen dizkiete herrialde berrietako ateak erbesteratuei. Argentinan, Roberto Mario Ortiz Lizardi presidentearen 1940ko urtarrilaren 20ko eta uztailearen 18ko dekretuei esker, naziotasuna, lana eta bizitokia hilabete eskas batean ziurtatuz. Berriz ere XVIII. mendeko lehen atzerriratzeen irudira, Iparraldetik lehen, Paristik gero eta Londrestik 1940 eta 1945 bitarte, euskal erakunde antolatzaile orokor baten eskutik jaso zuten erbesteratuek aholku, sorospen eta dirulaguntza. Eusko Jaurlaritzak eta *Liga Internacional de Amigos de los Vascos* bezalako erakundeek eta lagunarteez antolatu

⁶ Pozo eta Compañía, Donostia, 1885.

zuten Ameriketarantz erbetea. 1936 eta 1937 bitarte Ameriketako hiriburuetan sortutako Ordezkaritzen eskutik ziurtatu eta koordinatu zen herrialde bakoitzean atzerriratuei eskaini beharreko laguntza. Laburbilduz, XVIII. mendean bezala sare gisako erbeteaz hitz egin dezakegu 1940ean ere: Euskal Herrian eratutako eta bideratutako deserria, hots, nahiezean eta indarrez bortxaturiko erbetea bai noski, baina antolatua, bateratua eta babestua.

Bost mailez zegoen erbetea antolatzeko eta bideratzeko egitura administratiboa osaturik, hots, Eusko Jaurlaritza, Ordezkaritzak, atzerriratuen sorospenerako elkarteak, eusko etxeak eta Ameriketako gobernuak. Errepublikako gobernuarekin elkarlanean atzerriratuen ondoz-ondoko itsas-bidaiak antolatu zituen Jaurlaritzak. Halarik ere, Bigarren Mundu Gudaren bigarren urtean, Frantzia okupaturik, Ingalaterra inbasioaren mehatxupearan eta Atlantikoa nazien urpekontzien menpe, nazioarteko laguntza eskatzen zuen zeregina zen hau. Hortaz, haurren ebakuazioan egin zen bezalaxe, frantziar eta britainiar gobernuen eta elkarte pribatuen laguntzaz atzerriratuen sorospenerako elkarteak osatu behar izan zituzten. Frantziako Errepublikako Adiskideen elkarte dugu horietako bat, alegia 1937an frantziar estatuan euskal errefuxiatuen errolda osatuz, behar gorrian bizi ziren errefuxiatuei, lana, bazka edo eta laguntza medikua eskaini ziena. Hortik aurrera eta, goian esan bezala, 1938an egoera politikoa eta estrategikoa okertzean, beste zenbait elkarte osatu ziren. Euskal atzerriratuengan naziotasun ezak eragiten zituen neke politikoei eta administratiboei irtenbide emateko osatu ziren Eusko Jaurlaritzaren eraginez *Comité de Socorro a los Vascos* eta *Comité de Intereses Generales de Euzkadi* batzordeak 1938ko abenduaren 16an. Erakunde horiek batu, eta 1939ko apirilean Frantziako *Liga Internacional de Amigos de los Vascos* elkarte osatu zuten. Halaber, 1939ko abuztuaren 29ean *Comité de Secours aux Réfugiés* batzordea eratu zen Euzko Alderdi Jeltzalearen eraginez Frantziara eta, helburu berekin osatu zuen egun bat beranduago Buenos Airesko Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzak *Comité Pro Inmigración Vasca* batzordea. Elkarteen, ordezkartzen eta, nagusiki, eusko etxeen lana dugu Ameriketako gobernuarekin harreman instituzionala, azken finean, Amerikako atzerriaren ardatz nagusia dugu bertako herrialdeen elkartasuna eta laguntza.

Ildo honetan, bai jatorriz zein eratzeko eta bideratzeko inplikaturiko instituzioak direla eta, politikoa dugu noski erbetearen izaera, egitura konplexu eta eratu bat osatzen duen 1940ko euskal erbetea. Baziren ordea erbetearen antolakuntzarekin Amerikarantz ihes egin zuten eta Jaurlaritzarekin kontakturik edo harremanik izan ez zuten euskal atzerriratu ugari. Izan ere, Bigarren Mundu Gudaren ostean Euskal Herriak bizi zuen miseria politikoarengandik eta ekonomikoarengandik iheska Amerikako bidea hartu zuten hainbat eta hainbat lagunek. Zenbaitek *Ibarra*, *Naviera vascongada* edo *Aznar* konpainietako ontzietan lanean hasi ondoren amerikar portuetara iristean egiten zuten ihes; beste batzuk, *Tacoma* itsasontziko bidaiari nafarrek bezala, XIX. mendeko ereduari jarraiki, errekrutatze sistema zaharrera jo zuten. Erbete paraleloa dugu hau zenbaitetan, ahal nola, Bizkaian eta Gipuzkoan gauzaturiko 1947ko eta 1951kako greben osteko errepresioaren eraginez gertatutako ihesaldiak. Halaber, politikotzat jo behar dugu eliza katolikoak hainbat eta hainbat euskal apaizengan behartutako deserriak, apaizak babesteko batzuetan, apaiz nahastariren arrastorik ez izateko bestetan, zigorra jasa zezaten zenbaitetan. Jokin Zaitegi, Imanol Berriartua, Iñaki Aspiazua edo Alberto Onaindia ditugu aurrekoaren adibide. Hortaz, politikoa izanik, konplexua eta anitza dugu 1940ko desterrua.

Kronologikoki hiru erbeste bereiztu behar ditugu 1936ko Guda amaitu ondorengo hamabost urteetan, hiru erbeste pairatu baitzituzten 1937 eta 1955 bitarte hainbat eta hainbat euskal herritarrek, alegia, 1937koa, 1940koa eta 1949-1955ekoa. Ez dira erbeste bakar baten ondorioak, ez eta gertakizun bakun eta soil baten bi aro edo epe. 1937 eta 1955 bitarteko atzerriraturiko Euskal Herriaren borroka politikoa dugu hiru erbesteen ildo eta lokarri nagusia, alabaina, bai oinarrian zein forman ere eragile eta erabide ezberdinak dituzte hiru erbesteek. 1937ko ekinaren 19an Bilbo nazionalen esku geratzean izan zuen lehen euskal erbesteak sorburu. 1940an naziek Iparraldea garaitzean hartu zuten Euskal Herrian ziren azken euskal deserriratuak Ingalaterrako edo Amerikako bidea. 1949ko krisialdi ekonomikoaren ondorio zuzena dugu 1949tik 1955era hedatzen den ttantakako hirugarren deserria. Ildo berean, Bartzelonan ziren Eusko Jaurlaritzako lagunek edota Kataluniako frontean ziren gudariak salbu, ez zuten euskal herritarrek 1939an deserririk jasan, hortaz, ezin 1939ko euskal erbesteaz aritu.

Esan bezala, 1937koa dugu lehen euskal erbestea, hots, 1936ko Gudaren amaieran gauzatutako atzerria. 1937an Eusko Jaurlaritzak Bartzelonan kokatzen denean atzerriraturiko gobernuak dugu Euskadikoa jada. Marçeau kaleko Parisko ordezkariak erosi zenetik eta naziek Paris garaitu arte Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia dugu hau, atzerriko egoitza alegia. *Tribunal de responsabilidades políticas* delako epaimahaiaren eskutik erregimenak ezarritako zigorregandik ihesik, Iparraldea izan zuten jomuga nagusia atzerriratu gehienek. Bigarren Mundu Guda hasi aurretik, 1938ko Eguberrietan hain zuzen, hasi ziren atzerriratuen artean Amerikako bidea hartzeko lehen susmoak pizten. Baziren Iparraldetik alde egiteko zenbait arrazoi. Lehenik, erbestea luzatzen zela aurreikusten hasi zen eta ez zegoen Iparraldean atzerri luzeago bati ekiteko posibilitate ekonomikorik. Euskal atzerriratu ugari jo zuten orduan Landetara, Biarnora edo Gersera egurretan edo eraikuntzan lan bila. Aspiazu aitaren lanari esker, euskal erbesterratu multzo zabal bat bildu zen Tarbesen bai eraikuntzan zein hiriko armategiko sutauts biltegian lan eginik. Hala ere, gero eta ezkorragoak agertzen ziren agintari frantziarrak errepublikar errefuxiatuengan, bereziki Jean Ybarnegaray diputatuaren eredura Vichy gobernuan parte hartuko zuten indar ultraeskuindarren kideak. Honekin guztiarekin batera, nazionalak Espainiako guda irabazten zutela aurreikusten hasi zen 1938ko udan eta, halaber, nabaria zen European egoera politikoa okerrera jotzen zuela.

Iparraldea usteko arrazoiekin batera, Ameriketara abiatzeko arrazoi ugari zituzten atzerriratuak, izan ere, eusko etxeen eskutik eta zenbait amerikar gobernuen laguntza irmoarekin, kontinente berriko atak irekita ikusi zituzten euskal eta errepublikar atzerriratuak. Kuban 1928ko otsailaren 20ean sinaturiko *Convención de la Habana de Derecho de Asilo* asilo eskubideko hitzarmena berritzearen, Ameriketako VII. Nazioarteko Biltzarrean asilo politikoko konbentzioa sinatu zuten Hego Ameriketako herrialdeek 1933ko abenduaren 26an. Zazpi urte geroago eta asilo hitzarmenari jarraiki, errepublikar atzerriratuak babesteko eta Amerikarantz salbu bideratzeko hitzarmena sinatu zuen Mexikoko gobernuak Vichy gobernuarekin 1940ko abuztuaren 21ean. Halaber, Roberto Ortiz Lizardi Argentinako presidentek 1940ko urtarrilean eta uztailean onetsitako dekretuek errazten eta eragiten zuten Amerikarako migrazioa. Bestetik, 1938ko Zortzigarren Panamerikar Biltzarrean zein 1939an, 1940an eta 1941ean izandako Kontsulta Bileretan aliatuen alde eta ardatza osatzen zuten herrialdeen kontra kokatu ziren Hego Ameriketako estatu gehienak. Alabaina, aurreko arrazoi guzti hauekin batera eta, goian esandakoaren ildoan, bi mendeko euskal migrazio korronteen bidea hartu zuten

1937ko eta 1940ko euskal atzerriratuek. Eusko etxeetan zituzten senitartekoak eta lagunak zain, itsasontziz heltzen ziren euskaldun atzerriratuei Ameriketako portuetan aurrekuz eta eskuzabal harrera eginik. 1936ko eta 1939ko guden eraginez erbesteraturik, herrikideen laguntzari eta babesari heldu zioten. Azken hau dugu Amerikara jotzeko arrazoi nagusia.

Eragozpenak baziren noski, izan ere, ez zuen 1938an Eusko Jaurlaritzak Ameriketara ordezkaritzarik. Hortaz, berehalaxe hasi ziren euskaldunak presentzia historikoa eta politikoa zuten amerikar herrialdeen hiriburu gehienetan delegazioen atea zabaltzen. Urte eta erdi eskasean zazpi ordezkaritza nagusiak jarri ziren martxan. Eta, esan bezala, ordezkaritzen eskutik osatu ziren euskal atzerriratuen lagun-elkarteak. 1939ko abuztuaren 30ean osatu zuen *Comité Pro-Immigración Vasca* batzordea Argentinako ordezkaritzak. 1939ko abuztuaren 29ean eta 30ean hurrenez hurren osatu ziren *Comité de Secours aux Réfugiés* eta *Comité Pro Immigración Vasca* batzordeak. Horrek guztiak lagundu zuen Ameriketako itsasbide luzea atzerriratuen artean irekitzen. 1939ko otsaila eta 1942ko martxoa bitarte aunitz itsasontzi atera ziren Amerikarantz. 1939ko otsailaren 28an irten zen *Vita* itsasontzia Mexikorantz. Hilabete luze bateko bidai baten ondoren iritsi zen, martxoaren 23an, Veracruzera. *Sinaia*, maiatzaren 26an, eta *Ipanema* ekainaren 12an atera ziren Mexikora. *Cuba*, *Habana* eta *Flandre* itsasontziek jarraitu zieten Venezuelarantz ekainaren 25ean eta uztailaren 28an hurrenez hurren. Txilerantz abiatu zen *Winnipeg* abuztuaren 4an eta, Baionatik Caracasera *Bigarrena* eta *Donibane* euskal itsasontziak abuztuaren 6an; Venezuelarantz ere *Bretagne* itsasontzia abuztuaren 9an.

1938ko udazkenean Eusko Jaurlaritzaren asmoak, harreman instituzionala eta borroka politikoa Europan eta Europan soilik finkatua egonik, urte eskas batean Amerikarantz zuzenduko zuen erbestea. Hiru urteko tartean arras aldatu zen Eusko Jaurlaritzaren politikagintzako gunea eta interes estrategikoa. 1940ko ekainaren edo uztailaren ondoren ikusi zen lehen aldiz Ameriketako eusko etxeak Euskal Herriak bizi zuen egoeraren alde politikoki mobilizatzeko beharra eta, honekin batera, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko borroka politikoan Ameriketako euskal erbeste antolatu eta bateratu batek izan zezakeen eragina eta egin beharra. 1942 eta 1955 bitarte Amerika izango da Eusko Jaurlaritzaren borroka politikoaren ardatz estrategikoa bai eta erbesteratu gehien harrerako, sostenguko eta babeseko lurra. Inork ezin zuen hau 1937an aurreikusi.

1940koa dugu bigarren erbestea. Lehen ez bezala ez ziren oraingoan espainiar faxistak deserrira eragin zutenak, germaniar naziak eta frantziar ultraeskuindar kolaboratzaileak baizik. Izan ere, arras gaizkitu zen frantziar estatuan zeuden euskal eta errepublikar erbesteratuen egoera. Frantziar gobernuak igorri zituen 1939ko apirilaren 4an Argelès-sur-mer kontzentrazio zelaian hainbat euskal gudari, zelaiaren baitan *Gernika berri* eremua sortuz. Frantziar gobernuak antolatu eta osatu zuen ere 1939ko apirilean Gurs ondoko zelaia Biarnon ia 2.000 euskal atzerriratu bertan kokatuz. 1940ko maiatzaren 18 eta 25 bitarte, alegia naziek Paris garaitu baino hilabete bat lehenago, 800 bat euskal atzerriratu atxilotu zituen frantziar poliziak Gurs herriko kontzentrazio zelaira eramateko. Halaber, maiatzaren 20an itxi zuten Frantziako agintariak *Liga Internacional de Amigos de los Vascos* erakundeko eta Jaurlaritzako egoitzak. 1940ko abuztuaren 27an Alemaniarrek Iparralde garaitu ondoren Lequericaren eskutik Serrano Suñerrek de la Baume Vichy gobernuko ordezkaritari 636 gorrien zerrenda helarazi bazion ere, Gestaporen eta Vichy erregimeneko kolaboratzaileen esku geratu zen 1937ko euskal erbesteratuengan eragindako errepresioa. Gutxi izan ziren Companys edo Zugazagoitia

bezala Urraca komisarioaren eskutik nazionalen eskuetan fusilatzeke naziek utzitako euskal atzerriratuak. Besteak beste, 1942az geroztik, eta, nagusiki, 1944az geroztik, ez zuelako Francoren erregimenak Vichy gobernuarekin edota naziekin kontaktu handirik nahi, ez eta gainezkatutako espetxeak gehiago bete. Beraz, atzerriratu askok Iparraldean, Landetan, Biarnon, Gers edo Toulouse aldean Vichy gobernuko poliziak edo Gestapok harrapatuak, nazien kontzentrazio zelaietan eta lantegietan aritu ziren 1940 eta 1944 bitarte. Hainbat eta hainbat espainiar eta kataluniar errepublikarrekin batera, frantziar erresistentziako indarrak osatu, eratu eta egituratu zituzten 1940az geroztik. Laburbilduz, *Front Populaire* koalizioko frantziarrek bezala, nazien eta Vichy gobernuko poliziaren eta kolaborazionisten errepresioa eta oldarraldia jaso zuten euskal erbesteratuak. Jokin Azketa, José Elizalde, Fabian Etxeberria, Bittor Lekarotz, Bagazgoitia, Bilbao, Iturbide, Argaiz... eta frantziar erresistentziarekin kolaboratu zuten beste atzerriratu ugari ditugu guzti honen lekuko.

Bi bide nagusi hartuko zituzten ba 1940ko euskal atzerriratuak. Aurrean aipatutakoekin batera, Ameriketara biderik aurkitu ez zutenak, Europan geratu ziren ezkutaturik, esan bezala, Iparraldean, Landetan, Gersen edota Biarnon gehienak. Askok eta askok frantziarrek salaturik, nazien Atlantikoko harresia eraikitzeke lantegietan bukatu zuten guda. Beste batzuk, erresistentzian lehen eta *Gernika* gudarostean gero, nazien aurka armak hartu zituzten. Bestetik, Ameriketara edo Ingalaterrara abiatu zirenak ditugu. 1940ko uztailaren 26an *St. Dominique* itsasontzia atera zen Bordeletik Mexikorantz. 1941eko urtarrilaren 15ean *Alsina* hartu zuen Mexikorako bidea. Honen ondoren *Nyassa* itsasontzi portugaldarrak eramango zituen 1942ko maiatzaren 22an Marseillatik Amerikarantz guda amaitu aurretik azken euskal erbesteratuak. 1945 eta 1949 bitarte, Errepublikako gobernuak zein Jaurlaritzak eta eusko etxeek eskaintzen zuten laguntzari esker, jarraitu zuten zenbait euskal atzerriratut Amerikako bidea hartzen.

1949 eta 1955 bitartekoa dugu azken atzerriratzea. Barne deserria dugu hau, erbestearen erbestea alegia. Izan ere, Guda Hotzak eragindako ondorio latza dugu hau. Estatu Batuetako kongresuan zuen gehiengoari eutsiz eta arrisku gorriaren aitzakiapean Mac Carthy eta Mac Carran kongresistek sorgin-ehizari ekin zioten, besteak beste, Harry S. Truman presidente demokrataren gobernu agortzeko estrategia gisa. Izan ere, Espainiarekiko eta, ondorioz, Francorekiko hurbilpeneko politikaren kontrakoa zen Truman. Gobernu demokrataren oposizioak ezin izan zuen ordea eragotzi Jaurlaritzarekin zuen elkarkidetza errotik usteltzen joatea. 1949az geroztik arras akituta, krisialdi ekonomiko larrian murgildurik utzi zuen Eusko Jaurlaritza, izan ere, 1949ko krisialdi politikoaren eta ekonomikoaren ondoren, autarkiari eutsi behar izan zion Euskadiko gobernuak. Politikoki, Franco uzkaitezke Nazio Batuen Erakundeko guda galtzea dugu lehen ondorioa, hots, erbestearen luzamendu damugarria. Bidenabar, Jaurlaritzak Errepublikako gobernuarekin zituen harreman instituzionalak guztiz baretu ziren, ia 1955az geroztik desagertu arte. Ordura arte nazioarteko politikagintzan Jaurlaritzako lehen ardura Nazio Batuen Erakundeko lehia izan bazen, ez zen inoiz gehiago garrantzizko ekimen esparrua izango. Europa izango zen bigarren aldiz, 1942 baino lehen izan zen bezala, borroka politikoaren eremua. Hala ere, ondorio politikoak baino eragin zuzenagoa eta zorrotzagoa izan zuen itomen ekonomikoak. Isla handia izango zuen 1950tik aurrera Eusko Jaurlaritzak diseinatutiko plangintzan 1949ko krisialdia ekonomikoak. Ikuspegi autarkikoari helduz, erabateko birmoldatze ekonomikoari ekin behar izan zion Jaurlaritzak. 1950eko ekainean, hots, estatubatuar gobernuarekin

izandako haustura eta bi hilabete soiletan, kaleratu zuen Ameriketako ordezkariari zuzendutako isilpeko zirkular batean Jaurlaritzaren finantzatzeko jesapenaren proposamena Lehendakariak. Honekin guztiarekin batera, birmoldatze administratibo sakon bati ekin behar izan zion Jaurlaritzak ere eta, hau dugu hainbat eta hainbat atzerriratuentzat hirugarren erbestearen sorburua. Egun batetik bestera lanik gabe, Jaurlaritzak eskaini ahal izan zuen laguntzarekin eta sostenguarekin, zenbaitek Europatik Amerikarantz edota amerikar herrialde batetik bestera joan behar izan zuten lan bila. Beste zenbaitek tokian bertan lortu zuten, eusko etxean edota ordezkariaren bitarte, lanbide berria.

Krisialdiak izan zuen eraginarengatik, aurreko erbesteak baino askoz murriztuagoa dugu hau, batez ere eta esan bezala, hainbat eta hainbat kaltetuk ez zutela harrerako herrialdea utzi behar kontutan izanik. Kopuru zehatza ematea zaila bada ere, krisialdiaren eraginez hamar bat familia izan zirela Uruguain kaltetuta badakigu. Gehiago izan ziren noski Argentinan, Txilen, Parisen edo Venezuelan. Ez dira gutxi 1949tik aurrera Ameriketako eusko etxetara Jaurlaritzaren laguntzaz heltzen diren 1937ko eta 1940ko atzerritatuak. Hala ere, nahiz eta atzerriratutako kopuru murriztasunari bagara ere, lekualdatzeari premia gorrian eta nahiezean ekin behar izan ziotelako, 1937an eta 1940an erbesteratutako lagunak zirelako eta, hortaz, ezin zutelako Euskal Herrira jo, lekualdatzeko Jaurlaritzaren laguntza jaso zutelako eta, azken finean, harrerako herrialde berrietan berriz ere Jaurlaritzaren inguru erbesteko borroka politikoari eutsi ziotelako eta berez erbestearen egitura konplexuaren parte jarraitu zutelako izaten, hitz egin dezakegu hirugarren erbestealdi batez.

Asko dira XIX. mendeko euskal deserriekin alderatuz 1937ko eta 1940ko erbestealdiek aurkezten dituen berezko ezaugarriak, bai eta 1936ko erbeste galiziarrarekin edota 1939ko erbeste kataluniarrarekin eta espainolarekin parekatuz. Izan ere, hau dugu lehen ezaugarria, bai kronologikoki zein egiturari eta bilakaerari dagokionez, erbeste errepublikarraren baitan atzerri propioa, berezia eta apartekoa osatzen du euskal deserriak. Goian esan bezala ezin dugu kronologikoki 1939ko euskal erbesteaz ari. Halaber, lehen urtetan bai barne erakundeari zein finantzamenduari dagokionez autogestionarioa izan bazen ere, zalantzarik ez, 1955etik aurrera arras independentea dugu erbesteko Jaurlaritzaren. 1939an Espainiako Errepublikako erbesteko gobernuaren errotik desegina zegoenean eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanak zeharo gaizkituak zirenean, Ameriketako eta Europako gobernuarekin zein Nazio Batuen Erakundearen baitan Euskal Herriko gobernuaren izenean harremanak sendotzeko garaia zela garbi utzi zuen Jaurlaritzak Meudonen lehen eta, behin Lehendakariaren agerrera gertatu ondoren, 1942an gero. Ildo berekoa dugu Euskadiko Batzar Nagusiko politika ere Churchillen edo De Gaullen gobernuarekin harremanetan jartzean. Ez zen azken hau zenbait errepublikarrek Agirrerri edo Irujori aurpegiratzen zieten bezala aukera ideologiko soila, premia estrategikoa ere bazen. 1939 eta 1945 bitarteko erbesteko Errepublikaren egoera ezin latzagoa zenean eta, hortaz, Jaurlaritzaren batera hondoratzeko arriskua zegoenean eta, bestetik, Errepublikako gobernuak berak Jaurlaritzaren zuzentzeko, bideratzeko edota soil-soilik laguntzeko gai ez zenean hartu zuten sailburuek gestio politiko independentearen eta kudeaketa ekonomiko autogestionarioaren erabakia. Eta honek guztiak bilakatzen du euskal deserria errealitate historiko eta politiko berezia eta singularra. 1955az geroztik, Errepublikako gobernuaren ezereztapenaren aurrean, bakarrik eta soilik ekin behar izan zion Jaurlaritzak aurrean irekitzen zitzaion erbeste luzeari eta ungarriari.

Soziologikoki, eusko etheen inguru egituraturiko euskal erbesteak ez zuen errepublikar deserriarekin kontaktu zabalik izan. Eusko etxeek eskaini zieten kontinente berrira esku hutsik heldu ziren erbesteratuei lana, elkartasuna eta sostengua; eusko etheen eta Jaurlaritzako ordezkariak eskutik lortu zuten eusko etxeko kideek amerikar herrialdeen gobernuetako laguntza, babesa eta euskarria; ez zuen guzti honetan, Mexikon ez bada noski, Errepublikako erbesteko gobernuak inplikazio maila handirik izan. Eta, baliabide murrizkak, egoera latza eta barne desoreka politikoa zela eta, Errepublikako gobernuak ezin zuena bete, eginkizuntzat hartu behar izan zuen Jaurlaritzak. Euskal erbesteratu guztiak izan zuten Amerikara joateko laguntza, bai eta hara heltzean, jana, lana eta etxea. Errealitateak, eguneroko lanak eta iraupenak bilakatu zuten Jaurlaritzaren inguruko euskal erbestea berezia. Are gehiago, GALEUZCA dugu Ameriketako erbesteak lotzeko, batzeko eta elkarrekin bideratzeko Galiziako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen azken ahalegina, alabaina, ez zen hau lortu. Helburu politiko bat izanik, sakan handia sumatzen zen jada nazio bakoitzak atzerrian eratutako gizartearen artean.

Esandakoaren ildoan, ideologikoki trinkoak ditugu 1937ko eta 1940ko euskal erbesteak. Kontzientziazio maila handia eragin zuen erbesteratuen artean helburu politiko bateratu batek, bai eta Ameriketara iristean, eusko etheen lagunen artean ere. Goian esan bezala, erbeste politikoa dugu hau, Euskal Herriak aurretik jasan dituen beste erbesteak baino kutsu politiko sakonagoaz eta iraukorragoaz blaiturikoa alegia. Izan ere, errepresioaren adineko inplikazio politikoa dugu euskal erbestekoa. Ildo honetan bertan, badago XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako erbesteekin 1936ko gudaren osteko erbestealdiak ezberdintzen eta bereizten duen beste ezaugarri bat, hots, produkzio bibliografiko naroa. Bai politika zein literatura edo historia, filosofia, etnologia eta, orokorrean kultura alorrean, bibliografia ugari utzi digu erbesteak 1937 eta 1955 bitarteko lehen urte zailetan. Sebastián Amorrorturen laguntzarekin Ixaka López Mendizabalek eta Andrés Irujok sortutako EGIN argitaletxea eta Buenos Airesko *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkaria, *Euzko Izpar Banatzea*, *Euzko Deya*, *Gernika*, *Ikuska*, *Los Vascos en Venezuela...* eusko etxe, alderdi politiko eta ordezkariak bakoitzak eta Jaurlaritzak berak ere, alegia euskal erbesteko instituzio bakoitzak, izan zuen agerkari edo egunkari propioa. Euskaraz ere naroa dugu produkzio bibliografikoa Jokin Zaitegik Guatemalan osatutako eta hamar bat urtez eutsitako *Euzko Gogoa* aldizkaria dugu hemen aitzindari, bai eta Euskalerrian bertan, 1948az eta 1954az geroztik *EGAN* eta *Zeruko Argia* hurrenez hurren.

Liburuei dagokionez, ugaria da ere produkzio literarioa, politikoa edo zientifikoa. Bingen Ametzagaren liburutegia gainbegiratzuz eta bibliografian ikus daitekeen bezala⁷, 69 liburu ditugu politika eta kritika politikoaren esparruan 1936 eta 1956 hogeituro urteko tartean bildurik; 66 euskal zuzenbide historikoaren arlokoak; 140 euskal hizkuntzalaritzari buruzkoak; *Euzko Gogoa* aldizkariko hamar urteko itzulpenak alde batera utziz, 100 bat itzulpen; beste 100 bat ele, antzerki eta olerki liburu euskaraz; 182 debozio liburu euskaraz; 53 literatur bilduma eta klasikoen argitalpen berri; 15 literatur lan gazteleraz; 32 liburu kritika literarioaren esparruan; 37 Euskal Herriaren historiaren ingurukoak; 114 euskal etnologia, arte edo kulturari buruzkoak. Guztira 900 liburutik gorako produkzio bibliografikoa, denak euskaraz idatzitakoak edo Euskal Herriko hizkuntza, historia, kultura edo politika arlokoak. Ez da hau ordea liburu guztiak biltzen

⁷ Ikusi, Bingen Ametzagaren liburutegia. *Euskal erbesteko klasikoak (1937-1960). Euskal erbesteko bibliografia eta iturri bibliografikoak.*

dituen erbesteko produkzioaren zerrenda osoa, bilduma osatu bat baizik, alegia, Amerikako zein Iparraldeko euskal erbesteratuengan isla gehiago eta eragin handiagoa izan zuten liburuen zerrenda. Bestetik, egileak ere erbestearekin eta modu batean edo bestean lotura izan zutenak dira gehienak. Askoz luzeagoa ba izan daitekeen 900 liburutik gorako produkzioa. Ildo honetan, bai landutako gaietan zein ikuspegiaren aldetik produkzio literarioak erbesteko euskal ideologiaren trinkotasuna aurkeztuz, erbesteratuen kultura maila altuaren isla da ere, idazleak, irakasleak, filosofoak, artistak eta, oro har, erregimenaren pentsamolde bakarraren kontra agertu ziren pentsalari guztiak alde egin behar izan baitzuten.

Sendotasun ideologikoaz gain, Ameriketara errazki erroturiko komunikazio sistema egituratu bati esker, antolakuntza bateratua eta gertakuntza zentralizatua aurkeztu du euskal erbestea. Izan ere, 1937ko Parisko lehen erbestean ezarri zituen Eusko Jaurlaritzak funtsezko oinarri estrategikoak. Euskal Herriak XIX. mendean pairaturiko deserriak baino migrazio fenomeno antolatuagoa dugu XX. mendekoa, goian esan bezala, XVIII. mendean Gipuzkoako Erret Konpainiak bideratutakoaren moldekora. Aurreko euskal deserrietan ez bezala, elkarrekin lotu zituen atzerriratuak eta eusko etxeen inguru biltzen ziren XIX. mendeko euskal etorkinen seme-alabak, Jaurlaritzaren borroka. *Liga Internacional de Amigos de los Vascos* erakundeak, *Federación de Entidades Vascas* eusko etxeen elkarteak, *Unión Mundial de Vascos* Manuel Intxaustiren proiektuak edota Jaurlaritzak berak ordezkartzen eskutik bat egin zuten euskal erbestea proiektu eta amets baten inguru, hots, borroka baten inguru. Amerikako eta Europako euskaldunak jomuga bakarrarekin elkar lotu zituen Euskal Herriko historiako lehen gertakari politikoa dugu hau.

XVIII. mendean Gipuzkoako Batzar Nagusien eskutik gauzatu zen antzera, babes instituzionala izan zuten erbesteratuek Jaurlaritzaren ordezkartzen eskutik Ameriketara. Apatridia, XX. mendeko migrazioen ondorio latzenetarikoaren aurrean, garrantzi handikoa izan zen amerikar estatuak euskal erbesteratuei, eta Argentinan, Kuban edo Uruguain gertatu zen bezala, soil-soilik euskal erbesteratuei, eskainitako nazioarteko sorospena. Euskal etxeei esker ez zitzaion zaila suertatu amerikar estatu demokratikoen laguntza eskuratzea eta mantentzea Jaurlaritzako delegazioei. Babes diplomatikoa Europatik ihesik itsasoratzean zein Atlantikoa zeharkatzean; babes instituzionala eta administratiboa amerikar estatu demokratikoen eskutik; gertuko laguntza eta Ameriketara bizitza berriari ekiteko babes praktikoa eta morala eusko etxeetan. Besteak beste, Argentinako, Mexikoko, Uruguaiako eta Venezuelako naziotasuna eskuratu ahal izan zuten, ia tramite administratiborik gabe, euskal atzerriratuak; berrogeialdi samingarriak eta umiliagarriak jasan gabe porturatu ziren euskal atzerriratuak Argentinan, Mexikon, Uruguain eta Venezuelan. Babes instituzionalaren eragina dugu guzti hau.

Aurrekoarekin lotuta, nazioartekotasuna dugu 1936ko Guda osteko euskal erbestearen ezaugarri nabarmena. Argentinan, Estatu Batuetan, Guatemalan, Kolonbian, Kuban, Mexikon, Panaman, Txilen, Uruguain eta Venezuelan barna barreiatu ziren nagusiki euskal atzerriratuak. Izan ere, Amerika osoan zehar zabaldu zen 1938 eta 1942 bitarteko tarte kronologikoan hedatuko zen euskal migrazio fluxua. Ildo berean, erregimenak sortutako depresio ekonomikoarengandik eta errepresio politikoarengandik iheska, milaka euskal etorkin heldu ziren Ameriketako kostetara 1945etik aurrera. Aipaturiko amerikar estatu demokratikoen sorospenak eta, nagusiki, Nazio Batuen Erakundeko gudak, nazioartekoa bihurtu zuen euskal erbestearen borroka eta kausa politikoa.

Amerikar kontinentean zeharreko atzerriratuen sakabanaketa geografikoak ez zuen elkartasun ideologikoa eta ekintza politiko-kultural bateratua eragotzi. Izan ere, hauxe dugu Amerikar Eusko Etxeen Elkartearen edota Ordezkaritzen sorkundearen zioen artean bat, hots, herrialde ezberdinetan ziren atzerriratuen arteko komunikazioa eta koordinazioa gauzatzea. Honekin batera, Bigarren Mundu Gudaren eraginez demokraziaren aldeko nazioarteko borrokarekin bat zetorren euskal herritarren oinarrizko eskubide zibilen, politikoen eta kulturalen zapalketaren aurrean demokraziaren leheneratzearen aldeko borroka partekatu zuten kontinente berriko estatu demokratiko gehienek. Aipaturiko estatu hauek Aliatuen alde erakutsitako jarrerak ikaragarri lagundu zuen Eusko Jaurlaritzaren asmoak kontinente berrian zabaltzen. Bigarren Mundu Guda ostean Nazio Batuen Erakundea sortzean, traba handirik gabe lortu zuen atzerriko Jaurlaritzak Hego Amerikako herrialde demokratikoen lankidetzat. Nazio Batuen Erakundeko hamar urteko lehiak eta amerikar estatuen politikak berak elkar batu zituen Amerikan zehar barreiatutako euskal erbesteratuak.

Harreman instituzionalak edo atzerri harreman diplomatikoak bideratu eta gauzatu zituen instituzionalki Jaurlaritzak erbestean. Lehen aldiz, Euskal Herriaren eskubide politikoak eta kulturalak defendatuz, Amerikako eta Europako gobernuekin jartzen zen euskal gobernu bat harremanetan. *Consejo Nacional de Euzkadi* Batzar Nagusiaren eskutik lehen eta, Jaurlaritzak berak 1941eko urritik aurrera, Euskal Herriaren eskubide historikoen auzian Britainia Handiaren, Frantziaren eta Estatu Batuen inplikazioa nahi izan zuten lortu. Ez zen ordea Bigarren Mundu Gudan Francoren aurkako interbentzio militar zuzena lortu ez eta, 1953az geroztik, Francoren erregimenaren nazioarteko isolamendua mantentzea. Hala ere, Argentina, Mexiko, Uruguai eta Venezuela bezalako Amerikako estatu demokratikoen aldeko jarrera irmoa lortu zuen atzerriko Jaurlaritzak, bai eta, nagusiki, euskal atzerriratuengan harrera eta tratatu ezin hobea. European, Errepublikako gobernuarekin bat hasieran eta, Francoren aurkako oposizio politikoa osatzen zuten alderdi guztien artean gero, erregimena Europako Ekonomi Elkartetik eta NATOtik at mantentzea lortu zuen Jaurlaritzak. Bestalde, bai Ameriketara zein European euskal gatazka politikoa lehen aldiz mahaigaineratzeko aukera izan zuen Jaurlaritzak eta, aldi berean, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea defendatzeko beta historikoa.

Atzerriratuen kopuruari begira, XIX. mendeko migrazio fluxuekin alderatuz 1939ko euskal erbestea oso urria izan bazen ere, ikaragarria dugu Ameriketara izandako oihartzuna, harrera eta bertan gauzatutako lorpenak. Euskaltzale multzo ezin txikiago baten gogoak, eusko etxeak jada irabazia zuen entzuteak eta Eusko Jaurlaritzako nazioarteko lehiaren zintotasunak izan zuten euskal erbestearen sendotze prozesuan eragin zuzena. Halaber, Amerikako historian izan zuen ere eragina euskal erbesteak *Office of Strategic Services* estatubatuar erakundearen eskutik 1943 eta 1949 bitarte faxismoaren aurkako buruturiko borrokak. Ildo honetan bertan, *La Gran Semana Vasca de Montevideo* 1943ko Uruguaiako euskal astearen antzera, lehen aldiz Ameriketara gauzatzen zituzten eusko etxeen inguru bildutako lagunek atetik kanpoko estatu mailako ekitaldiak eta manifestaldiak, euskal kultura eta atzerriraturiko Euskal Herriaren asmo politikoa zabalduz eta erazagutuz.

XIX. mendeko euskal erbestealdietan baino indar eta gogo handiagoarekin zuten Euskal Herriratzea helburu atzerriratuek. Izan ere, edozein erbestealdi batek berezkoa duen herriminarekin batera, bazuten 1937ko eta 1940ko erbesteratuek Euskal Herriarentzat proiektu politiko bat, 1936ko Gudak amaigabe utzitako ametsa gauzatzeko xedea,

demokrazia leheneratzeko asmoa, jaioterriarekiko eginbehar bat. Atzerriratuen begietan Euskal Herrian euskarak eta euskal kulturak pairatzen zuen umilazioak eta bazterkeriak ikaragarri areagotu zuen itzultzeko gogoa, urtez urte luzatzen zihoan itzultzearen mina. Herrimina dugu atzerriraturiko euskal olerkarien eta elegileen gai nagusietariko bat, bai eta, goian ikusi dugun bezala, atzerriko produkzio bibliografiko politikoarena eta zientifikoarena. Honekin lotuta, ziurgabetasuna eta jakineza dugu aipatu beharreko beste garrantzi handiko alderdia. Amerikar herrialde ezezagunetan, lan aukera egonkorrik gabe, gizarte arrotz baten baitan, familiako kide gertuenak zein lagun hurkoak berriz ere noiz ikusiko ote zuten jakin gabe, familiak maiz bereizturik berriz ere noiz elkartuko ote ziren jakin gabe, ezjakitea dugu atzerriratuen kezka nagusienetarikoa. Egunez egun geroak zer zekarren jakin gabe, European itsasontzia hartu ondoren non porturatuko ote ziren jakin gabe itsasoratu ziren hainbat eta hainbat atzerriratuk.

Soziologikoki ere badute 1936ko Gudaren osteko euskal atzerriek zenbait berezko ezaugarri. Lehenik, XIX. mendeko deserrietan ez bezala, adin guztietako lagunak ditugu erbesterratuak. Familia osoak heldu ziren sarritan Ameriketara: senar-emazteak eta seme-alabak bai eta aitona-amonak ere. Milaka hurrek ezagutu zuten 1936az geroztik erbestea bai eta etxetik urrun urtetan luzatuko zen gurasoengandik bereizketa. Herri oso batek jasan zuen erbestea. Bestetik, maila sozial ezberdinekoak ditugu atzerriratuak. Erbestearen izaera politikoaren eragina dugu azken hau. Kapital handiko familiekin batera langile umilez osatutakoak bildu ziren eusko etxeen inguru. Anitza izan zen gerora ere eusko etxeetako gizartea. Alde batetik, Euskal Herrian zituzten ondasunak galdu zituzten gehienek eta, bestetik, dirutza handia egin zuten zenbaitek Ameriketara; azkenik, Ameriketara jada diru handia eginga zuten euskal familiak baditugu ere, hortaz, 1940an bezala, etorki arras ezberdineko familiak biltzen jarraitu zituen erbesteak 1955ean eta 1975ean ere.

Bi gizaldiren arteko harremanak gauzatu zituen erbestea dugu 1940koa. Euskal etorkinen ondorengoak ziren Ameriketako eusko etxeak eraiki eta osatzen zituzten lagunak. Europako egoera politikoaren eraginez lehen atzerriratuak Ameriketara heldu zirenean, ezinbesteko talka gertatu zen iritsi berrien eta bertakoen arteko ikuspegiaren artean. Euskal Herria ulertzeko, sentitzeko eta Euskal Herriarekiko zuten asmoak ezberdinak baitziren hasiera batean. Berehalaxe egin zuten bat ordea. Hasiera batetik ireki zizkieten eusko etxeko kideek etorri berriei ateak eta, urte gutxi batzuen buruan, Jaurritaren borroka politikoarekin bat egin zuten ere. Ildo honetan bertan, berrogei urte gaitzigarri luzatutako erbestea izanik, bi gizaldiko atzerrialdia dugu eta, ikusiko dugun bezala, garrantzi handiko alderdia da hau. Batetik, eta beti ere soziologikoki, erbesteko ondorio latzenetariko bat eragin zuen horrek: familia tronkalaren erabateko haustura. Behin eta berriro errepikatzen den mintzagaia dugu hau Atlantikoan zehar 1940 eta 1955 bitarte hamar urtez hedatutako gutun trukean. Izan ere, denboraren joanarekin ikaragarri areagotu zen arazoa dugu hau. Aitaren eta amaren etxearen inguru bildutako familiak erabat zarraturik aurkitzen ditugu Ameriketara, hain zuzen, hauxe dugu, besteak beste, Ameriketako eusko etxeen sorreraren eta ugaltzearen kausa zuzena. Eusko etxeen inguru biltzen dira urraturiko familiak eta bertan eratzen dute, atzean utzitakoaren irudira, euskal gizarte finko bat. Eusko etxearen baitan gauzatzen dira, hirurogeiko hamarkadan, Ameriketara jaiotako erbesterratuaren bigarren gizaldiko lagunaren arteko ezkontza gehienak. Ordurako lagun hurkoek betetzen dute etxean hautsitako familia-lokarriak. Senitartekotasuna bilakatzen du adiskidego hurkoa erbestearen luzaerak.

Itzulera erbesteko leloa izanik, 1960tik aurrera Ameriketara bertan jaiotako euskal erbesteko bigarren gizaldia hartuko du, gutxika, borroka politikoaren ardura. Alabaina, 1937an utzitako Euskal Herria aldatuz doa. Alde batetik, estatu barneko migrazio prozesuek eta, nagusiki, 1955az geroztik gertaturiko handitze demografikoak, arras eraldatu zuen erbesteratutakoen jaioterria. Eta, bestetik, zaharregiak ziren aldi berean eraldatzen zihoan amerikar gizarte berrian erabat errotzeko. Beste Euskal Herri bat ezagutuko zuen eta, nagusiki, beste modu batez ulertuko eta sentituko zuen erbesteko bigarren gizaldia aberria. Era berean, erbestea txiki txikitik bizitako erbesteratuen belaunaldi berriaren eta euren gurasoen arteko gizaldiz gizaldiko jauzia ikaragarri areagotu zuen erbesteak. Amerikan jaioa zen bigarren gizaldia eta, noski, kontinente berriaren kutsu kulturala eta linguistikoa mamituz hazitako eta hezitako belaunaldia dugu hau. Gizaldiz gizaldiko jauziaz jabeturik, hainbat eta hainbat gaztek burutu zituzten, gurasoek bidalita, Euskal Herriko ikastetxeetan lehen hezkuntza eta batxilergoa. Hala ere, ez zuen honek mende hasierako kontinente zaharrea ohitura zaharreko Euskal Herrian eta hogeita hamar urte geroago Ameriketara jaiotako bi gizaldien arteko sakonunea otzandu.

Ildo honetan bertan, jarraipena izan du erbesteak Euskal Herriko XX. mendeko hirugarren gizaldian, itzuleraren gizaldian alegia. 1938az geroztik Ameriketara iritsi ziren erbesteratuen bilobek jo dute, Argentina edo Venezuela bezalako herrialdeen krisialdia dela eta, Euskal Herria. Eusko etxeen eguneroko lanari esker, hiru gizaldiren ostean Euskal Herria jarraitzen du izaten atzerrian bizi diren hainbat eta hainbat euskal semeen habi eta abiapuntu.

1937ko eta 1940ko amerikar erbestearen kronologiari dagokionez, lau aro bereiz ditzakegu. 1937ko ekaina eta 1938ko udazkena bitarteko aldia dugu lehenengoa, hots nazionalek Bilbo garaitu zutenetik Buenos Airesko ordezkariak martxan jartzeko lehen urratsak eman arte. Goian esan bezala, Iparraldeko erbestea dugu hau. 1938ko udan 36ko Guda Francoren alde desorekatzen zela ikusirik eta, naziek Austria martxoaren 13an irentsi ondoren, urriaren hasieran Sudeteak garaitzen zituztela ikusirik, Ameriketara ihes egiteko lehen ahotsak hasi ziren 1938ko Eguberrietan serio zirkulatzen. 1938ko udazkenetik 1940ko udazkena arte luzatuko zen lehen erbesteko bigarren aldia. Goian esan bezala, Iparraldean lan egiteko aukera urriak eta, frantziar estatuko ultraeskuindar alderdien eta taldeen erasoek eragina izan zuten Ameriketarako lehen itsasorapenetan. 1939ko otsaila eta iraila bitarte euskal eta errepublikar erbesteratuz betetako hamar bat itsasontzi itsasoratu zirelarik tarte kronologiko honetan gauzatu ziren, Iparralde, Bordele eta Marseilla abiapuntu eta Amerika helmuga, lehen porturapenak. 1940 eta 1942 ditugu etorrera urteak Ameriketara. Ameriketako kostetara helduera gauzatu ziren bigarren erbesteko migrazio fluxuaren urteak ditugu hauek. Goian esan bezala, 1942ko udazkenean heldu ziren Jaurkitaren eta Errepublikako gobernuaren laguntzarekin, Bigarren Mundu Guda iraun zuen bitartean, azken itsasontziak Amerikara.

1942-1946 bigarren erbesteko urrezko urteak ditugu. Marçeau kaleko egoitzako 1938 eta 1940 bitarteko jarraibideei eutsiz, 1942tik aurrera Bigarren Mundu Gudaren parte hartu zuten euskal zerbitzu ezkutuek Aliatuen alde. Guda amaite eta Nazio Batuen Erakundeko lehia bere goreneko puntura heldu zen. Oscar Lange Poloniako ordezkariaren eskutik eta Mexikoko, Venezuelako edota Uruguaiako Nazio Batuen Erakundeko mandatarien laguntzaz, Francoren erregimeneko isolamendu politikoaren lehen urteak ditugu hauek. Laster ilundu ziren ordea Bigarren Mundu Gudaren osteko pozak. 1947-1948 trantsizio

urteetan atzera jo zuen Nazio Batuen Erakundearen baitan francoren erregimenarekiko presioa. Perón jeneralaren Argentinaren inguru biltzen hasi ziren nazioarteko erakundean Estatu Batuen aurrean eta Francoren aldeko zenbait erregimen totalitarista. Espainiar erregimeneko isolamenduaren lehen haustura suposatu zuen 1948ko Franco-Perón protokoloak. Eta, transizio urteen ostean laster iritsi zen 1949-1955 tarteko krisialdia. 1949 eta 1952 bitarte gauzatu zen, Guda Hotzaren eraginez, Jaurlaritzaren itoaldi ekonomikoaren lehen ondorio latzak; 1953 eta 1955 bitarte isolamenduaren amaiera eta euskal eta errepublikar erbestearen zorigaiztoko luzamendua nabaria da lehen aldiz. Estatu Batuetako gobernu errepublikar berriak Francoren gobernuarekin sinaturiko itun komertziala eta estrategikoa, Vatikanorekin hitzarmendutako Konkordatu eta, guzti honen ondorio zuzena, Francoren Espainia Nazio Batuen Erakundearen baitan onartzea ditugu euskal erbestearen aro luze baten amaiera. Aurrera begiratzeko itxaropen izpirik bazegoen ordea. NATOk europar herrialdeek eta Europar Batasunak Whigt D. Eisenhower presidente estatubatuarrari Francoren erregimena baitan onartzeko proposamenari emandako ezetza borobilak berriz ere Europarantz begira jarri zuen Jaurlaritzako atzerri politika. Ate berriak ireki zituen 1940ko erbestearen aro berria dugu hau, Europako Mugimenduarena hain zuzen.

Estatubatuar zerbitzu ezkutuekin izandako hausturak hondamendi sakona erakarri zuen Jaurlaritzarengan. Helburu politiko eta kultural orokorrenak berak izaten jarraitu bazuten ere, isla izugarria izan zuen barne antolakuntzan, atzerriko harremanetarako estrategia politikoan eta hainbat eta hainbat erbesteratuen eguneroko bizitzan. Jatorrian Guda Hotzeko ondorio bat izanik, iturri ekonomikoaren agorpena dugu Jaurlaritzari kalte handiena eragin zion krisialdi honen alderdia. Sailburu eta Jaurlaritza osatzen zuten alderdi politiko guztien oniritziarekin, autogestioa eta autofinantzazioa izan zen ordutik Euskadiko Gobernu hartu zuen bidea, har zezakeen bide bakarra. Autogestioaren eskutik autarkia politikoari heldu zion ere Jaurlaritzak. Errepublikar gobernuarengandik eta estatubatuar gobernuarekin izandako nazio harreman instituzionalengandik urrutiratuz, euskalduna ez zen beste edozein diru iturri batengandik ere ihes egin zuen ordutik Jaurlaritzak.

1950eko Jaurlaritzaren birmoldatze estrategikoa dakar hondamen ekonomikoak: estrategikoa eta administratiboa. Estatu Batuetako 1948ko itzulinguruak eta Nazio Batuen Erakundeko 1955eko erabakiak ez du, ideologikoki, politikoki, Jaurlaritzaren baitan eta gobernu osatzen zuten indar abertzaleen baitan birplanteamendu teoriko nabarmena gauzatu. Estatu Batuen eta Errepublikako gobernuaren hondamendiaren aurrean, Jaurlaritza politikoki gotor mantendu eta ekonomikoki autogestionarioa bilakatzea izan zen Agirreren erronka nagusia. Euskal Herriak euskal erakundeengan, euskal erbesteratuengan eta euskal erresistentziarengan behar zuen soilik iraun.

Aurreko ataletan esan bezala, 1950eko ekainean, alegia, estatubatuar *Central Intelligence Agency* erakundearekin izandako haustura eta bi hilabete eskas geroago, mahaigaineratu zuen Jaurlaritzak jesapena. Urtea amaitu baino lehen jaulki zuen Jaurlaritzak jesapena eta, esan bezala, harrera ezin hobea izan zuen. Jarritako kapitaleko 1950eko, 1951ko eta 1952ko interesak Jaurlaritzaren esku utzi zuten Caracasko erbesteko lagunek, guztira 600.000 bat bolívar bildu zituen sei hilabete eskasetan Jaurlaritzak Venezuelan eta milioi batera ere espero zuten iristea. Ez zen euskal erbesteko funtsei esker Jaurlaritza aurrera egin ahal izan zuen aldi bakarra, Estatu Batuetako ordezkariak, 1951eko Parisko ordezkariak berria edota Iparraldean euskal kulturaren inguru suspertu

ziren hainbat eta hainbat ekimen euskal erbesteratuen eskaerei esker ahalbidetu ziren soil soilik.

Esan bezala, hirugarren erbestea eragin zuen krisialdi honek. Barne erbestea dugu hau, maiz tokialdaketa erakarri zuena baina ez beti, alegia, Lasarterengan edota Ametzagarengan, ez ordea, Francisco Basterretxearentzat, Jesús Galíndezentzat edo Andrés eta Pello Mari Irujorentzat. Bestetik, Nazio Batuen Erakundeko lehiak 1945 eta 1949 bitarte izan zuen garrantziarengatik amerikar ordezkarietzako kideek orduak eta orduak eman zituzten nazioarteko erakundearen Biltzar Nagusien aurretik amerikar herrialdeen laguntza eta sorospena jasotzearen. Neke diplomatikoetan emandako denborak beste helburuetan eta zereginetan eman zuten ordutik ordezkarietzek, kultur arloan esaterako. Donibaneko Kultur Etxearen proiektua, 1948ko eta 1954ko Euskal Ikaskuntzen Biltzarrak, *Congreso Mundial Vasco* euskal kulturako eta politikako biltzarrak edota 1952tik aurrera mundu zabaleko eusko etxeetan ospatzen hasi ziren euskara egunak Jaurlaritzak euskal kulturari eman nahi zion bultzakadaren isla da. Azkenik, Europan birkokatu zuen krisialdiak berriz ere erbesteko borroka politikoa. Estatu Batuar politikagintzaren esperientziak erakatsita, bazekien oraingoan Jaurlaritzak zein irismen eta eragin politikoa zuten kontinente zaharrean. Ildo honetan bertan, NATOn edota Europar Batasunean ez zuen Jaurlaritzak Amerikako herrialdeei esker Nazio Batuen Erakundean izan zuen isla eta indar politikoa inoiz izango.

Amerikar erbesteko bigarren aldiko hastapena dugu 1949ko krisialdia. Euskal erbesteko luzapenak Euskal Herritik miseriatik iheska zetozen nekazal emigrazio fluxua piztu zuen: aunitz euskal seme jasoko zituen berrogeita hamargarren hamarkadan amerikar eusko etxeek. Itzalean utzi zituen etxera azkar itzultzeko hainbat eta hainbat erbesteratuen asmoak Guda Hotzak. Amets eta xede ezberdinak zituen hirugarren aro bati ekin behar izan zion 1949az geroztik erbesteko bigarren gizaldiak. Zeharo eraldatzen zihoan hirurogeigarren hamarkadan mendebaldeko gizartearekin bat, aurrera ekin behar izan zion eusko etxeek biltzen zituen erbesteko gaztedi berriak. II. Vatikanoko kontzilioak eliza katolikoarekin bakezkoak egiteko aukera eman zien erbesteko lagunei, halaber, gogotsu bizi zuten amerikar eusko etxeetan Kennedy aroa. 1940ko atzerriko lehen gizaldeak jaioterriarekin zituen heldulekuak moztu zituen modu batean edo bestean ere Euskal Herritik hain urrun zen euskal erbesteratu gizarte amerikarrak. Aldi berean, misilen krisialdiaren osteko Estatu Batuen eta Sobiet Batasunaren arteko Guda Hotzaren berotzea, mendebaldeko gizartean gauzaturiko garapen sozialak eta ekonomikoak aldaketak eragin zituen Euskal Herrian barna ere. Ondorioz, helburu estrategiko berriei, nazioarteko harremanen marko politiko berriari, 1959ko uztailaren 31ean ETaren agerpenari, erresistentzia biziagotzeko ekimenei, euren artean, Ameriketako eusko etxeetan antolatutako baina Euskal Herrian bertan ospatuko Aberri Egunei eta, 1970tik aurrera, itzulpenaren saiakerari aurre egin behar izan zion, besteak beste, Euskal erbesteko gizaldiz gizaldiko erreleboak.

Honekin guztiarekin batera, euskara osotuaren inguruko gogoetak mahaigaineraturiko erronka, arazo eta polemika dugu gizaldi berriak eutsi beharreko auzia. Esan bezala, bestelakoak baitira 1960tik aurrera euskal literaturako gaiak, erabideak, forma, estiloa, metrika... eta euskara bera ere. Joxe Azurmendik aipaturiko Orixeren eskola falta gizaldi baten jauziari erbestea eta amerikar gizarte berritzaile eta aurrerakoi baten baitan gehitzen zaion gizaldiz gizaldiko erreleboaren isla da. 1960tik aurrera Euskal Herriak bizi zuen industrializazio eta hazkunde demografikoaren inguru jorraturiko literaturari egin behar

izan zion bidea erbesteko 1940 eta 1955 bitarteko lehen aroaren izpirituarekin horren bat zetorren Orixeren *Euskaldunak* olerki epikoak eta pastoralak. Bai Ameriketara zein Euskal Herrian euskal literaturaren aro berri baten bultzatzailea da gizaldi berria, alabaina, bai azalean zein funtsean ere xede, asmo eta helburu ezberdinak zituzten erbesteko eta Euskal Herriko gizaldiek topo eta agian talka ere egingo zuten 1975ean.

Bibliografia.

- E., *Les français et la guerre d'Espagne*, Actes du colloque de Perpignan 28-30 septembre, Centre de Recherche sur les Problemes de la Frontiere, Université de Perpignan, 1990.
- Abellán, José Luis (zuzendari), *El exilio español de 1939*, 6 ale, Taurus, Madril, 1976-1978.
- Abrisqueta, Francisco de, “Vascos en Colombia”, *Muga*, 55. zkia., ekaina 1986.
- Adam, M., “L'exode rural au Pays Basque”, *Reforme Sociale*, XVIII, Paris, 1909.
- Aduriz Oyarbide, Iñaki, *América y los vascos. Introducción y estudio bibliográfico*, Universidad de Deusto, Donostia, 1998.
- Alted, Alicia, “El exilio español y la ayuda a los refugiados”, *Historia* 16, 24. zkia., 90-103. orr., martxoa 1987.
- Álvarez Gila, Oscar; Escobedo Mansilla; Beascochea (argitaratzaileak), *Emigración y redes sociales de los vascos en América*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1996.
- Ametzaga Aresti, Bingen, “Exportación de Cacao durante la Compañía Guipuzcoana”, *El Farol*, 204. Zbk, XXIV urtea, 13-25. orr., Urtarrila-Otsaila, 1963.
- Ametzaga Aresti, Bingen, *El elemento vasco en el siglo XVIII venezolano*, Ediciones del Cuatricentenario de Caracas, Caracas, 1966.
- Ametzaga Aresti, Bingen, *Hombres de la Compañía Guipuzcoana*, Banco Central de Venezuela, Caracas, 1963.
- Ametzaga Aresti, Bingen, *Vicente Antonio de Icuza, comandante de corsarios*, Ediciones del Cuatricentenario de Caracas, Caracas, 1966.
- Ametzaga Iribarren, Arantzazu, *Crónicas del Alsina, Pasajeros de la Libertad*, Idatz Ekintza, Bilbo, 1982.
- Ametzaga, Arantzazu, “Vascos en América”, *Kultura. Cuadernos de Cultura*, 4. zkia., Arabako Aldundia, Gasteiz, urtarrila 1983.
- Anasagasti, Iñaki (Konp.), *Conversaciones sobre José Antonio Aguirre*, Idatz Ekintza, Bilbo, 1983.
- Anderson, Benedict, *Imagined communities: Reflections on the origin and spread of nationalism*, Verso, Londres, 1991.
- Aramburu Zudaire, José Miguel; Usunáriz Garayoa, Jesús María, *La emigración española a ultramar*, Tabapress, Madrid, 1991.
- Aranaz Zuaza, Ignacio, *Navarros en América: cinco crónicas*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992.

- Armengaud, A., “Les migrations extérieures”, Braudel, F.; Labrousse, E., *Histoire économique et sociale de la France*, PUF, Paris, 1976.
- Arrieta Rodríguez, Angel Mari, *La emigración alavesa a América en el siglo XIX: (1800-1900)*, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Gasteiz, 1992.
- Artis-Gener, Avelli, *La diáspora republicana*, Euros, Bartzelona, 1976.
- Arzac, M.A., *L 'émigration*, L Gougy, Paris, 1899.
- Audera, V., *La población y la inmigración en Hispano-América*, Cultura Hispánica, Madrid, 1954.
- Bahamonde, Ángel, “La sociedad española de los años 40”, *Cuadernos del Mundo Actual*, 3. zkia., 1993.
- Barberen, P.. *L 'émigration basco-béarnaise*, Vignancour, Pabe, 1886.
- Barthonat, Jean-Pierre, “Le Parti Communiste français et les réfugiés d’Espagne en 1939”, *Le Mouvement Social*, 103. zkia., 122-140. orr., Apirila-ekaina 1978.
- Basaldua, Pedro de, *Crónicas de guerra y exilio*, Idatz-Ekintza, Bilbo, 1983.
- Basaldua, Pedro, *Con los alemanes en París*, EKIN, Buenos Aires, 1945.
- Belsunce, M., *De l'émigration. Mémorial des Pyrénées*, 1842.
- Beltza, López Adán, Emilio, *El nacionalismo vasco en el exilio (1937-1960)*, Txertoa, Donostia, 1977.
- Bermúdez Plata, Cristóbal, *Catálogo de viajeros a Indias durante los siglos XVI, XVII y XVIII*, Ministerio de Trabajo y Previsión, Madril, 1937.
- Bernoville, Gaëtan, *La farce de la main tendue. Du Fronte Populaire au Front Populaire*, Editions Bernard Grasset, Paris, 1937.
- Bertillon, J., *La dépopulation de la France*, Paris, 1911.
- Beyhaut, G., *Raíces contemporáneas de América Latina*, Eudeba, Buenos Aires, 1964.
- Bilbao, Jon, *América y los vascos*, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1992.
- Bilbao, Jon, *Eusko Bibliographia. Diccionario de bibliografía vasca*, 10 ale, Auñamendi, Donostia, 1970-1981.
- Bilbao, Jon; Douglas, William A., *Amerikanuak. Basques in the New World*, University of Nevada Press, Reno, 1975.
- Bodin, Louis; Touchard, Jean, *Front Populaire* 1936, Armand Colin, Paris, 1985.
- Borrás Llop, José M^a, *Francia ante la guerra civil española. Burguesía, interés nacional e interés de clase*, CIS, Madril, 1981.
- Botella, C., *El problema de la emigración*, Tipográficas de Huárlanas, Madrid, 1888.
- Branaa, Jean Eric, *Les basques de Amerique. Basques form America*, Branaa, Baiona, 1989.
- Casamayou, P., *Apuntes para un proyecto de emigración*, Tipográficas M. Ginés, Madrid, 1889.
- Charles, A., *L'émigration basco-béarnaise sous la monarchie de Juillet et le Second Empire*, *Annales du Midi*, LXXIV, 1962.
- Chatelain, A., “L'émigration basque. Recherches et enquêtes démographiques”, *Annales d'Economie*, II, 53, Pau, 1947.
- Christophe, Paul, *Les catholiques et le Front Populaire*, Editions Ouvrieres, Paris, 1986.
- Ciriquiain Gaiztagarro, Mariano, *Los guipuzcoanos en las empresas imperiales*, Imprenta de la Diputación de Guipuzcoa, Donostia, 1944.

- Ciriquiain Gaiztagarro, Mariano, *Los vascos en la pesca de la ballena*, Biblioteca Vascongada de Amigos del País, Donostia, 1961.
- Clark, Robert, *The Basques: The Franco years and beyond*, University of Nevada Press, Reno, 1979.
- Cola Goiti, José, *Euscal-naparren joera edo emigracioa*, Pozo eta Compañía, Donostia, 1885.
- Cola y Goiti, José, *L'émigration basco-navarroise*, Vignancour, Pabe, 1886.
- Conrado y Asper, A., *Cartas sobre emigración*, Pérez Dubrull, Madrid, 1881.
- Courgeau, D., *Etude sur la dynamique, l'évolution et les consequences des migrations. Trois siècles de mobilité spatiale en France*, UNESCO, *Rapports et documents de Sciences Sociales*, 51. zkia., Paris, 1983.
- Courougnon, Michel, *Les exilés des sept*, Mugalde, Hendaia, 1977.
- Crespo, A., “Emigración navarra al Sur de América”, *Euskara*, 227. zkia., 1883.
- Cuesta, J.; Bermejo, B. (Koord.), *Emigración y exilio. Españoles en Francia 1936-1946*, Eudema, Madril, 1996.
- Darrecagaix, V., “Notice sur les Basques”, *Bulletin de la Société de Géographie*, Paris, 1975.
- Dasconguerre, J.B., *De l'émigration dans les Basses-Pyrénées. Mémorial des Pyrénées*, Bordele, martxoak 31 1836.
- Dasconguerre, J.B., *De l'émigration dans les Basses-Pyrénées. Mémorial des Pyrénées*, Bordele, apirilak 7 1836.
- Delaunay, Jean Marc, “Orígenes históricos y determinantes de la actitud francesa hacia la España de 1936”, *Historia Contemporánea*, 10. zkia., 15-28. orr., 1993.
- Delbreil, Jean-Claude, *Centrisme et Démocratie Chrétienne en France. Le Parti Démocrate Populaire des origines au MRP 1919-1944*, Publications de la Sorbonne, Paris, 1990.
- Díaz-Trechuelo, M^a Lourdes, *Navegantes y conquistadores vascos*, Publicaciones Españolas, Madril, 1965.
- Dollot, L., *Les migrations humaines*, PUF, Paris, 1970.
- Donosty, José María, *Marinos guipuzcoanos*, Publicaciones Españolas, Madril, 1968.
- Dreyfus-Armand, Genevieve, “Approches des minorités regionales dans l'exil. Eléments sur l'histoire des Basques et des Catalans en France (1939-1975)”, *Exils et Migrations ibériques au XX siècle*, 23-40. orr., CERMI, 1995.
- Dreyfus-Armand, Genevieve, “Approches des minorités regionales dans l'exil. Eléments sur l'histoire des Basques et des Catalans en France (1939-1975)”, *Exils et Migrations ibériques au XX siècle*, 23-40. orr., CERMI, 1995.
- Duplá, Antonio, *Presencia vasca en América*, Gakoa Liburuak, Donostia, 1992.
- Duquesne, Jacques, *Les Catholiques français sous l'Occupation*, Editions Bernard Grasset, Paris, 1996.
- Elorza y Rada, Francisco, *A narrative of the conquest of the province of the Ytzas in New Spain performed by Captain Don Martín de Ursua y Arizmendi count of Lizarraga Vengoa*, Les Editions Genet, Paris, 1930.
- Estornés Lasa, Mariano, *Gentes vascas en América*, Donostia, Auñamendi, 1961.
- Etcheverry, L., “L'émigration des Basques en Amérique”, *La Réforme Sociale*, 2, XI, 1886.

- Etcheverry, L., *L'émigration dans les Basses-Pyrénées pendant 60 ans*, Congreso para el Avance de las Ciencias, Pabe, 1892.
- Fagan, Patricia Weiss, *Exiles and Citizens*, Latin American Monographs, Austin, 1973.
- Faucher de Saint Maurice, M., *La Canada et les Basques*, A. Côté et Cie., Québec, 1879.
- Fernández de Pinedo, E., “Los movimientos migratorios vascos, en especial hacia América”, *Espanoles hacia América. La emigración en masa, 1880- 1930*, Sánchez Albornoz (konp.), Alianza, Madrid, 1988.
- Fernández de Pinedo, Emiliano, *La emigración vasca a América. Siglo XIX y XX*, Jucar, Gijón, 1993.
- Gachiteguy, Adrien, *Les basques dans l'Ouest Américain*, Exkila, Bordele, 1955.
- Galíndez, Jesús, *Presencia vasca en América*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988.
- Garate, Justo, *Cuatro ensayos sobre España y América*, Espasa-Calpe, Buenos Aires, 1951.
- García Fernández, J., *La emigración exterior de España*, Ariel, Madrid, 1965.
- García Sanz-Marcotegui, Ángel (Koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, (Hiztegi biografikoa) Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzua, Iruñea, 2001.
- Goiogana, Iñaki; Irujo, Xabier; Legarreta, Josu, *Un nuevo treinta y uno. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo*, Fundación Sabino Arana, Bilbo, 2007. ISBN: 978-84-88379-74-0.
- Goldaracena, R., “Vascos y navarros que formaron familia en el Uruguay”, *Boletín del Instituto Argentino de Ciencias Genealógicas*, Buenos Aires, 1974-1975.
- Goldaracena, R., *El libro de los linajes*, Banda Oriental, Montevideo, 1971.
- González Echegaray, Rafael, *Capitanes de Cantabria*, Diputación Provincial, Santander, 1970.
- Hourmat, P., “L'émigration basco-béarnaise du XVIIème siècle a nos jours”, *Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Nouvelle Série, 132. zkia., Baiona, 1976.
- Irujo Ametzaga, Xabier; Irigoyen Artetxe, Alberto, *La Sociedad de Confraternidad Vasca Euskal Erria de Montevideo*, (History of the Euskal Erria Basque center in Montevideo), Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Salamanca, 2007.
- Irujo Ametzaga, Xabier; Irigoyen Artetxe, Alberto, *La hora vasca del Uruguay. Génesis y desarrollo del nacionalismo vasco en Uruguay (1825-1960)*, Sociedad de Confraternidad Vasca Euskal Erria, Montevideo, Uruguay, 2006. ISBN 9974-96-095-9.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Itsaso aurrean*, (Poems of the Basque exile in America by Bingen Ametzaga), Susa, Zarautz, 2006.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955). Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian* (Administration and foreign policy of the Basque government in America during the Franco years), IVAP Institute for Basque Administration of the Basque Government, Oñati, 2005.
- Izpizua, Santiago, *Historia de los vascos en el descubrimiento, conquista y civilización de América*, 6 ale, Impresora de José María Lerchundi, Bilbo, 1914-1919.

- *La emigración europea a la América Latina: fuentes y estado de la investigación*, IV. Reunión de Historiadores latinoamericanos-europeos, Biblioteca Latinoamericana, Berlín, 1979.
- *La emigración europea a la América Latina: fuentes y estado de la investigación*, IV. Reunión de Historiadores latinoamericanos-europeos, Biblioteca Latinoamericana, Berlín, 1979.
- Labaguerie, M., “L’émigration des Basques: aventure ou nécessité?”, *Activités du Pays Basque*, 158. zkia., 1963.
- Laborde, P., *L’évolution de la population de la vallée d’Osses (XIXème à XXème siècles)*, *Bulletin du Musée Basque*, 52. zkia., Baiona, 1971.
- Laharie, Claude, *Le camp de Gurs 1939-1945: Un aspect méconnu de l’histoire du Béarn*, Infocompo, Pabe, 1985.
- Larronde, Jean-Claude, “*La Roseraieko*” ospitalea, Bidasoa, Milafranga (Lapurdi), 2002.
- Larronde, Jean-Claude, *Le mouvement eskualerriste (1932-1937). Eskual Herri Zaleen Biltzarra (1932-1937). El movimiento eskualerrista (1932-1937), Eskualerrizaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1995.
- *Le clergé basque. Rapports présentés par des prêtres basques aux autorités ecclésiastiques*, H. G. Peyre, paris, 1938.
- Levasseur, E., *L’émigration*, Impr. Poupart, Paris, 1862.
- Levasseur, E., *L’émigration*, Impr. Poupart, Paris, 1862.
- Lormier, D., *Bordeaux pendant l’occupation*, Sud-Ouest, Bordele, 1985.
- Mayeur, Françoise, *L’Aube. Etude d’un journal d’opinion 1932-1940*, Cahiers de la Fondation Nationale des Sciences Politiques, Librairie Armand Colin, Paris, 1966.
- Medina, Xavier, *Los otros vascos. Las migraciones vascas del siglo XX*, Fundamentos, Madrid, 1997.
- Meuvret, J., “Les crises de subsistance et la démographie de la France sous l’Ancien Régime”, *Population*, 4. zkia., 1976.
- Michel, F., *Emigration des Basques dans le Pays Basque*, Didot Frères, Paris, 1857.
- Milza Pierre; Peschanski, Denis (Zuz.), *Exils et migration. Italiens et Espagnols en France, 1938-1946*, L’Harmattan, Paris, 1994.
- Miralles, Ricardo, “La política exterior de la República española hacia Francia durante la Guerra Civil”, *Historia Contemporánea*, 10. zkia., 29-50. orr., 1993.
- Morner, M., “La emigración española al Nuevo Mundo antes de 1810. Un informe del estado de la investigación”, *Anuario de Estudios Americanos*, XXXI, Sevilla, 1975.
- Morner, M., “La inmigración desde mediados del siglo XIX: una nueva América Latina”, *Rev. Culturas*, V. zkia., Paris, 1978.
- Mugarza Mecolalde, Daniel, *El decenio crítico. La política y la guerra en el País Vasco entre 1930 y 1940*, Oñati, 1974.
- Nagore, Javier, *En la Primera de Navarra (1936-1939)*, Dyrsa, Madril, 1986.
- Naharro-Calderón, José María, *El exilio de las Españas de 1939 en las Américas*, Anthropos, Bartzelona, 1991.
- Oddone, J. A., *La emigración europea al Río de la Plata, Banda Oriental*, Montevideo, 1966.

- O'Quin, P., *Études sur le décreusement de la population dans le département des Basses-Pyrénées*, Vignancour, Pabe, 1857.
- Ortiz de Zarate, Kerman, “Los vascos en la diáspora. Crónica del exilio americano”, *Punto y Hora de Euskal Herria.*, 441. zkia., Cuaderno monográfico 1936-1939. La Guerra en Euskadi, 58-60. orr., Donostia, 1986.
- Ortiz y San Pelayo, Félix, *Los Vascos en América*, Librería de la Facultad, Buenos Aires, 1915.
- Otero Boissvert, María, “Basque Bibliography in English”, *Boletín Bibliográfico de Estudios Vascos*, 6. zkia., Gasteiz, uztaila-iraila 1988.
- Palomo Ruiz, L., *La emigración española a América*, Impr. B. Rodríguez, Madrid, 1911.
- Papy, M., “L'émigration a partir du Pays Basque intérieur en 1900, d'après une enquête administrative”, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 129, Baiona, 1973.
- Petronor, *Itsaskaria, Los euskaros y el mar*, Bilbo, 1978.
- Picamilh, Ch., *Statistique Générale des Basses-Pyrénées*, Vignancour, Pabe, 1858.
- Pike, David Wingeate, *Les Français et la Guerre d'Espagne 1936-1939*, Publications de la Sorbonne, PUF, Paris, 1975.
- Pike, David Wingeate, *Vae Victis! Los republicanos españoles refugiados en Francia 1939-1944*, Ruedo Ibérico, Bartzelona, 1969.
- Pildain Salazar, María Pilar, *Ir a América. La emigración vasca a América*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1984.
- Poucel, B., *Études des intérêts réciproques de l'Europe et de l'Amérique du Sud*, Guilhaumin, Paris, 1849.
- Poucel, B., *Les émigrations européennes dans l'Amérique du Sud*, Paris, 1850.
- Poussou, J. P., “Les mouvements migratoires en France”, *Annales de démographie historique*, Colin, Paris, 1970.
- Reclus, E., “Les Basques, un peuple qui s'en va”, *Revue des deux Mondes*, Paris, martxo 1867.
- Rubio, Javier, “Las cifras del exilio”, *Historia* 16, 30. zkia., 15-32. orr., urria 1978.
- Rubio, Javier, *Asilos y canjes durante la Guerra Civil española*, Bartzelona, 1979.
- Rubio, Javier, *La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939*, 3 ale, San Martín, Madril, 1977.
- Rubio, Javier, *La emigración española a Francia*, Ariel, Bartzelona, 1974.
- Ruiz de Aguirre, Luis (Sancho de Beurco), *Vascos por el mundo*, Askatasuna, Donibane Lohitzune, 1975.
- Ruiz de Azua, Estibaliz, *Vascongadas y América*, MAPFRE, Madrid, 1992.
- Sallaberry, Francis, *Quand Hitler betonait la Côte Basque*, Harriet, Baiona, 1988.
- Santiso González, María Concepción, *Cien años de torrente migratorio hacia América. Diáspora vasca y enganchadores (1830-1930)*, Fundación BBV, Bilbo, 1998.
- Schor, Ralph, “Les partis politiques français et le droit d'asile (1914-1939)”, *Revue Historique*, 540. zkia., 445-459. zkia., urria-abendua 1981.
- Schor, Ralph, *L'opinion française et les étrangers en France 1919-1939*, Publications de la Sorbonne, Paris, 1985.

- Seoane y Ferrer, Ramón, *Navegantes guipuzcoanos*, Imprenta de la Revista General de Marina, Madril, 1908.
- Shain, Yossi (argitaratzailea), *Governments in exile in the contemporary world of politics*, Chapman and Hall, Londres, 1991.
- Sodigné Loustau, Jeanine, “L'accueil des réfugiés civils de 1936 à 1940; un exemple: la région Centre”, *Matériaux pour l'histoire de notre temps*, 44. zkia., urria-abendua, 1996.
- Soriano, R., *El exilio carlista en la España del XIX (Carlistas y "demócratas" revolucionarios)*, Madrid, 1984.
- St. Leger et Delbert, *Sur l'émigration transatlantique des Basques français, Paysan du Labourd*, 1857-1858.
- Statistique Générale de la France, Direction de la Statistique Générale, *Mouvements migratoires entre la France et l'étranger (1850-1940)*, Impr. Nationale, Paris, 1943.
- Statistique Générale de la France, Direction de la Statistique Générale, *Mouvements migratoires entre la France et l'étranger (1850-1940)*, Impr. Nationale, Paris, 1943.
- Stein, Louis, *Mas allá de la muerte y el exilio. (Los republicanos españoles en Francia, (1939-1955))*, Plaza y Janés, Bartzelona, 1983.
- Telligorri (José Olivares Larrondo), *París abandonada*, Ediciones La Verónica, Habana, 1942.
- Toticagüena, Gloria, *Diáspora vasca comaprada: etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Orokorra, Gasteiz, 2003.
- Ugalde, Martín, *Hablando con los vascos*, Ariel, Madril, 1974.
- Uribitarte, Xabier, “Voces de los vascos en el exilio”, *Euzkadi*, 221. orr., 1981.
- Urrutia, Txema, *El roble y el ombú: viaje a la América de los vascos*, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Gasteiz, 1992.
- Usabel, Gaizka, “Lo vasco en el mundo. Revistas, verdades y estereotipos. Selecciones de artículos”, *Muga*, 54-55. zkia., maiatza-ekaina 1986.
- Viers, G., “Les Basques et l'Amérique”, *Revue Géographique des Pyrénées*, XXVIII, 1957.
- Vilar i Costa, Joan, *Als catalans*, Toulouse, 1944.
- Villegas, Jean Claude (Koord.), *Plages d'exil: les camps de réfugiés espagnols en France, 1939*, BDIC, Paris, 1989.